


Sakanako **kirolari onenek** euren sariak jaso dituzte



Kirolak >> 11

Mendizaleen bilgune bihurtuko da, **beste behin, Aralarko monasterioa**. Mendizaleak **hainbat bideetatik abiatuko** dira tontorrera



Kirolak >> 13

# Esperientziatik laguntza ematera

Sexu indarkeria egoera gainditu duten Altsasuko sei emakume, udalaren laguntzaz, euren burua trebatzen ari dira

Prestakuntza despeditzen dutenean gaur egun sexu indarkeri jasaten duten emakumeei lagunduko diete >> 5

Astelehenean Altsasuko 7en **espetxealdiaz ebatziko** dute

Defentsaren helegiteak aztertuko dituzte. Asteartean bilkurak egingen dira >> 9

Gure Esku Dagoko taldeak lau herri gehiagotan >> 7

Flamenko eta euskal doinuen uztartzea Altsasun >> 14

24 familiei energia moztea eragotzita >> 5



Etxarri Aranazko abesbatzak emanaldian dantzarien laguntza izan zuen. UTZITAKOA

# Etxarriko abesbatza, txapelduna >> 15

## Bazkide zozketa

### ERABILI TXARTELA gure saltokietan

## ZOZKETA 30€-ko 3 bale





# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
ES56-3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU  
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



**Ariane eta Amagoia**  
ZORIONAK potxolak!! Jarraitu orain arte bezain jatorrak eta ederrak. Muxu pila bat etxekoan partez.



**Iñigo Otsoa Perez**  
ZORIONAK! potxolo zure 2.urtebetzean. Abenduaren oparirik onena zara zu. Mila muxu etxekoan partez.



**Juanjo Otsoa Cerdan**  
ZORIONAK aitatxo!!! Mila muxu Iraia, Iñigo eta amatxoren partez! Asko maite zaitugu!



**Oihan**  
ZORIONAK etxeko jatorrentzat! Iada 10 urte! Muxu haundi bat guztion partetik!

## Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideek:

3,50€

» irurtzun

## Bertsotan agurtuko dira Euskal Ekitaldiak



Aizpeak, Irurtzango euskaltzaleen topaguneak antolatutako Euskal Ekitaldiak gaur despedituko dira. Bertsotan despeditu ere. Oihana Iguaren eta Eneko Lazkoz bertsolariekin afaria iragarria dago Iratxo elkartearen 21:30etik aurrera. 40 bat pertsonen eman dute izena afaltzeko. Baina Aizpeatik jakinarazi dutenez, afaldu ondoren izanen den bertso saiorako bertsozale guztiendako atek zabalik izanen direla.

Irurtzango Euskal Ekitaldiak, ohi bezala, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan emanaldia jendetsuarekin hasi zen. Abenduaren 6an 45 bat irurtzundarrek Iruñerriko uraren ibilbidea egin zuten, Atarrabiako batana eta Mendillorriko ur putzuak ezagutzuz. Aurreko ostiralerako Hertzainak taldearen bertsioak jotzen dituen Txalainak bikotearen emanaldia aurreikusia zegoen, baina atzeratu beharra izan da. Oraindik ez dute datarik zehaztu.

## Abenduak

# 16-22

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

### Musika

**Eguberri kontzertua.** Abenduaren 16an, ostiralean, 20:30ean Altsasuko elizan. **Erkudengo Ama abesbatza.**

**El Txino Kudeiro eta Zartako-k.** Abenduaren 16an, ostiralean, 23:00etan Altsasuko Foru plazan.

**Flamenco etxea.** Abenduaren 17an, larunbatean, 19:00etan eta 21:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Gorka Hermosa, Haize Berriak banda eta Erkudengo Ama abesbatza.**

**No more blues.** Abenduaren 17an, larunbatean, 23:30ean Olatzagutiko Clinker tabernan.

**Eguberri kontzertua.** Abenduaren 18an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko elizan. **Etxarri Aranazko abesbatza.**

**Urte akaberako kontzertua.** Abenduaren 21ean, asteazkenean, 18:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. Altsasuko musika eta dantza eskola.

**Eguberri kontzertua.** Abenduaren 22an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. Etxarri Aranazko udal musika eskolako ikasleak.

**Musika eguberritan.** Abenduaren 21ean, asteazkenean, 18:30ean Irurtzango kultur etxean. Irurtzango musika eskola.

### Ipuin kontalaria

**Eguberritako oparirik onena.** Abenduaren 19an, astelehenean, 17:00etan Olatzagutiko liburutegian. 5 eta 8 urte bitartekoendako.

**Maite Franko.Ipuinen lapikoa.** Abenduaren 22an, ostegunean, 18:00etan Irurtzango liburutegian. **Izaskun Mujika.**

### Zinema

**Regreso a casa.** Abenduaren 16an, ostiralean, 21:45ean eta abenduaren 18an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Que dios nos perdona.** Abenduaren 16an, ostiralean, 22:00etan eta abenduaren 18an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**Ozzy (euskaraz).** Abenduaren 18an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**La buena vida.** Abenduaren 18an, igandean, 19:00etan Lakuntzako kultur etxean.

### Mendi irteerak

**Mendizale eguna.** Abenduaren 18an, igandean, goizez Aralarren.

### Bizikleta irteerak

**Lubierri-Iratzako bordak. (49 Km)** Abenduaren 18an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 9:20an Bioitza kanpinetik. **Barranka txirridulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

### Erakusketak

**Nafarroa 1936.** Abenduaren 16an, ostiralean, 17:00etatik 20:00etara, abenduaren 17an eta 18an, larunbatean eta igandean, 12:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, Lakuntzako kultur etxean. **Jose Ramon Urtasun.**

**Oroimenart.** Abenduaren 18ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean. **Altsasu Memoria.**

**Jaiotzak.** Ilbeltzaren 8ra arte, astelehenean larunbatera, 18:00etatik 20:00etara eta domeketan eta jai-egunetan, 13:30etik 14:30era eta 17:30etik 20:30era Olatzagutiko belenzaleen egoitzan. **Sakanako belenzaleen elkarte.**

**Eguberritako postalak.** Abenduaren 19tik ilbeltzaren 4ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, **Altsasuko lortia kultur gunean.**

### Literatura

**Una palabra tuya (Elvira Lindo).** Abenduaren 16an, ostiralean, 21:00etan Olatzagutiko liburutegian. **Irakurle taldea.**

**El último akelarre.** Abenduaren 19an, astelehenean, 19:00etan Haritza tabernan. **Arkatz liburu-denda.**

### Bestelakoak

**Merkatruke.** Abenduaren 16tik ilbeltzaren 16ra Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Gure Esku Dagoren aurkezpena.** Abenduaren 17an, larunbatean, 12:30ean Olatzagutiko kultur etxean. **Olatzagutiko GED.**

**Oroimenaren aldeko ekitaldia.** Abenduaren 17an, larunbatean, 19:00etan Lakuntzako kultur etxean.

**Neguko solstizioa.** Abenduaren 18an, domekan, 18:00etan Altsasuko Dantzaletan. **Eguberri taldea.**

**Laminatur.** Abenduaren 18an, domekan, 18:00etan Olatzagutiko Akelarre ludotekan. **Olentzerorendako gutuna emateko.**

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Abenduaren 16an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzea.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Abenduaren 18an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da.** Abenduaren 21ean, asteazkenean, 20:00etan Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

**#AltsasukoakASKE.** Abenduaren 20an, asteartea, 19:00tan, Irurtzun, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Urdiain, Olatzagutia eta Ziordiko plazetan kontzentrazioak. Altsasuko lortia kultur gunetik giza sareak abiatuko dira, 19:30ean Urdiain, Olatzagutia eta Ziordiko plazetan kontzentrazioak.

Ostiraleroko  
**SAIOA**  
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Sakanako kirolari onenen adierazpenak
- Idoia Goikoetxea berdintasun teknikariarekin hizketan
- Altsasuko auzipetuen gurasoei elkarrizketan

asteazkenean, zuzenean  
**Osasuna - Granada**  
Errege kopa. 20:45ean

107.3 FM  
**beleixe**  
www.guaixe.eus-en ON LINE



# Zer da Zuasti?



22 urte bete dituen kirol eta sozial Klub bat gara, familien aisialdi, kirol eta osasuna beharrak asetzen dituen. Zuasti naturan murgilduta dago, kokapen bikainean, hainbat instalazio dauzkagu kirola praktikatu, gure burua zaintzeko eta familien sozial beharrak asetzeko.

1.000.000 m<sup>2</sup>ko eremuan, 18 zuloetako golf zelaia dugu, Jose M<sup>a</sup> Olazabalek diseinatuta, praktiketako kantxa, Approach eta Putting Green duena. Honetaz gain, hiru tenis kantxa (bat estalita), sei padel kantxa, kiroldegi estalia, belarrezko futbol-8 zelaia, gimnasioa, hiru igerileku estaliak kanpoan, estalpeko igerileku eta jacuzzia, sauna, turkiar bainuak eta hidrotterapia zonaldea, edergintza eta fisioterapia zentrua.

Asteazken eta ostirala arratsaldez eta asteburutan eta jai egunetan egun osoz, ludoteka zerbitzua dugu. Gure aisialdirako begiraleek txikiendako ekintza ugari antolatzen dituzte, udako kanpua ere izaten dugu.

Eguberrietako karrera, mendi irteerak, puzgarriekin ur-festak, txirindula irteerak, hainbat eta hainbat jardura eskaintzen ditugu urtean zehar. Konpetitu nahi dutenendako, Zuastik golf, tenis eta padel taldeak ditu.

Kluberako sarrera Zuastiko zerbitzugunetik egiten da, A15 autopistatik. Sarrera eroso eta azkarra da.



Udako kanpaldiak egin ahal izateko kanadiar txabolak ditugu (litera, bainugela eta dutxa barruan), Jatetxea eta taberna ere baditugu, (denondako zabalik), Señorío de Zuasti XVI. mendeko Jauregian kokatuta. Kongresuak, ezkontzak eta bilerak ospatzeko aretoa ere badugu jauregian. 85.000m<sup>2</sup>ko hariztia ere badugu, korrika egiteko, paseatzeko eta lasaitasunez naturaz gozatzeko.

Jarduerak, golf, tenis, padel eta igeriketa ikastaroak, urte osoan eta adin guztiendako. Pilates, tonifikazioa, luzaketak, zumba, abdominalak hipopresiboak eta soinketa erritmikoa soinketa-gelan. Jarraipen eta atentzio zerbitzua dugu gimnasioan.

Familiendako aukera asko eskeintzen dugu, senide bakoitzak aurki dezake bere gustoko tokia gure klubean. Bakarrik, taldean, lagunekin... Ludoteka aisialdi eta hezkuntza apostua da, begiraleek antolatutako jardura eta taller anitzak ditugu eskuragarri, baita udako kanpua ere, lanaren, bizi pertsonalaren eta familiarraren bateragarritasuna bermatzeko.

Urte osoan zehar, leihaketa egutegiak, kirol rankingak eta erakusketak, erabiltzaile guztiei kirola, harremanak eta adiskidetasuna konbinatzeko aukera ematen diete. Momentu bereziak elkarrekin ospatzen ditugu, Sanmigelak, Donibaneko suak, Eguberrietako gaubelak eta abar. Gastronomiaren inguruko elkarteratzeetan eskaintza anitza eta zabala dugu.

## ESKAINNTZA...

Oraintxe bertan eskuartean dugu 36 €ko eskaintza berezia, hilabeteko kuota honekin gure klubaz disfruta dezakezu, baina gure ustez, hobe litzateke gurera etortzea eta gure kluba ezagutzea. Hortarako, zure familia eta seme-alabekin hurbiltzeko aukera eskeintzen dizugu, orri honetan agertzen den kupoia moztu eta gure sarreran aurkeztu ezker,

2017ko martxoaren 31ra arte baliagarria

## Eskerrik asko zure bisitagatik

Dagoeneko, faltan botatzen zaitugu...

Señorío de Zuasti Klubak zure familiarekin gure instalazioak doan ezagutzera gonbidatzen zaitu. Nahi duzun egunean.

Telf: 948 302 900

2017ko  
martxoaren 31ra  
arte baliagarria

GONBIDAPENA







Aingeru Mikeo

# Eguberri, eroak igerri

**astekoa**

Eguberriak gainean ditugu. Laster egunak luzatzen eta Urte Berria. Kaleak argizatuta daude eta Olentzeroren irudiarekin batera haurren nahiak loratu dira, eta baita gurasoen eta senideen borondatea ere haiek asebetetzeko. Ospakizun herrikoiak, erlijioz ziprztinduta. Filosofoak "Hil da jainkoa" aldarririkatu zuen, baina Olentzero

dator Kixmiren etorrera iragartzera. Erosketa eta oturuntza gehiegizkoak, baina ziurrenik urteko sasoirik xarmangarriena, era batera edo bestera denok harrapatzen gaituena.

Aldi berean, urte zaharra joan zaigu eta atzera begiratuta, hainbat albiste txar izan dira: Siriako gerra eta Ekialdeko iheslarien eta etorkinen egoera

ankerra; britaniarren Brexit, edo Rajoy eta Trump presidenten berriak. Gurean, Altsasuko gazteekin burututako bidetabekeria, haien zentzua eta senideentzat ondorio larriak izanen dituen. Horietan denetan, bortizkeriak, arrazismoak, geostrategia ankerrak eta, oro har, gizatasunaren eta elkarbizitzaren aurkako jarrerak indarra

hartu dute.

Hala ere, berri pozgarriak ere izan ditugu. Esaterako, Kolombian 50 urte luzeko gerrari amaiera emateko ituna sinatu dute. Gurean, Navarrometroak dioenez, aldaketaren Gobernu bizkor dago eta aurreko egoera itogarria gaindituz, hainbat arlotan haize berria sartu da, besteak beste, errenta bermea

egoera larrian daudenentzat, euskaldunak ikusgarri bihurtu gara, edo ezberdinen arteko elkarriketa indartu da.

Orain, nork bere erara Eguberriak gozatzea tokatzen da, zailtasunean dabilzanak gogoan hartuz eta, datorren urteari begira, gauzak hobeki izateko nahiari eta itxaropenari atea zabalduz.

## barrutik kanpora

# Auto istripua izan eta bakean argitu

Autoarekin istripua izatea arazoa da beti (...) istripua txikia bada ere, ezbeharraren kudeaketa gogaikarria da beti. Ez badago akordio osorik, edo zalantzarik badago, komenigarriagoa da polizia deitzea eta haiek ezbeharraren argitze-agiri bat egitea. Akor-

dioa badago, onez-oneko agiria betetzeak aseguru-etxearekin egin beharreko izapideak azkar ditzake eta kalte-ordainketa epe laburragoan ordain dadila ere. Dokumentu hori asmatuta dago bi autoen arteko istripuak kudeatzeko, hau da, istripuen %85a.

(...) Onez-oneko adierazpen agiri erdua berdina da aseguru-etxe guztiendako Europar Batasunean. (...) Agiriak bi kopia ditu, (...) Gidari bakoitzak kopia bat gorde behar du. Agiria nork betetzen duen ez da garrantzitsua, beti ere bi gidarien sinadura agertzen

bada. Sinadurek idazten diren datuen onarpena egiaztatzen du. Istripua izan dutenek onez-oneko agiria bere aseguru-etxeari igorri behar dio istripua gertatu eta zazpi eguneko epean. Berme osoz aritu nahi bada, konpainiari eskatu ahal zaio onez-oneko agiriaren kopia bat egitea kaltetuak originala gorde dezan, data islatzen duen konpainiaren ziguarekin. Agiria nahikoa izan beharko balitz ere, ez da sobera lekuko eta kaltetutako autoen argazkiak egi-

tea, adierazitako datuen euskarri dokumentala izan daitezke eta. Komenigarria izan daiteke ere istripuaren lekuko datuak jasotzea, geroago argitzea behar duten eztabaidarik balego (...) agirian agertzen diren datuak zuzenak direla ziurtatzea gomendatzen dugu baita istripuaren nondik norakoak eta autoen kalteak ongi azaldu ditugula ere. Agirian agertzen denarekin ados ez bagaude hobeez badugu sinatzen. **Iratxe, kontsumitzaile elkarte**

## hara zer dien

# Idea batzuk familiei laguntzeko

Berriro festa garaia hurbiltzen zaigu eta horrekin lotuta kontsumoaren garaia ere bai, besteak beste alkoholaria.

Gurasook batzuetan geure seme-alaben jardueren inguruan ikeritu, galdetu eta kuxkuxeatu egiten dugu pisten bila, jakiteko edan duten, nola, norekin, zer, eta abar. Dena dela, ikerketek esaten digutena zera da: garrantzitsuena da

txikitatik haiekin komunikazio ona izatea; haiengan konfiantza izatea; eta balioak oinarritzko balioak irakastea: ardura, arauaren errespetua, ezetz esaten jakitea, mugak... Halakoak praktikan jarri ez baditugu ere, oraindik badaukaguz eregin, nola ez. Ezetsi. Hona hemen FADek (Fundación de Ayuda contra la drogadicción) gomendatzen diguna gure seme-alaben

lehen mozkorraldiaren aurrean: arnasa hartu eta itxaron hurrengo egunera arte. Alde batetik, bera egoera hobean egongo da elkarriketa baterako; beste aldetik gu ez gara egongo lehengo emozioekin. Mozkortuta harrapatu dugunean baino lasaiago egongo gara. Oso gaizki ailegatzen bada, nola dagoen galdetzea oso garrantzitsua da eta beharra ikusten badugu, medi-

kuari laguntza eskatzea. Lasaitasunez jokatu. Ez "dramatizatu". Seriotasuna mantendu. Berak uler dezala kezkatzen gaituen kontua dela. Mozkorraldiaren arazoak eta zenbat alkohol kontsumitu duen jakiten saiatu. Alkohol gehiegi kontsumitzeak dakartzan arriskuei buruzko informazio gehiegi ez daukala ikusten badugu, emango diogu eta horri buruz hausnartzeko aprobetxatuko dugu. Parrandara ateratzen den hurrengorako geure seme-alabari alkoholaren kontsumo arduratsuari buruzko konpromisoa eskatuko

diogu. Alkoholaren kontsumo handia ohitura bihurtu ez dadin familiaren laguntza eskaini, aisialdi aukera osasuntsuagoak eskaini. Arauak eta ordutegiak adostuko ditugu seme-alabekin. Halaber, garbi utziko ditugu konpromisoak ez betetzeak ekarriko dituen ondorioak. Ondorio horiek beraiekin adostuko ditugu. Geure seme-alaben eguneroko arazoez arduratuko gara eta komunikazioa handituko dugu. Arazoak baldin badaude, laguntzen saiatuko gara.

**Sakanako Prebentzio Zerbitzuak**

## gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egingen dira.

Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko.

Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik. Gure helbideak: **Foru plaza, 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus**

ta zaie guztiz puskatzeko. Bidaliko ditugun eguna geroz eta gertuago dago eta Guardia Civila gure herrian duen zentzugabeko existentzia bere amaierara iritsiko da.

### Aupa gazteik!

Irati Altzelai. Etxarri Aranazko Gazte Asanbladaren izenean

Sakana kolore grisez margotu dute berriro; gatazka politikoa hau ebidentziara eramanez, herri oso bat kolpatu dute. Muntai polizial eta mediatiko gordinak Altsasuko gazteria erreprimitu du. Bes-

te behin ere urte askotan zehar gertatu izan den bezala, terrorismoaren aitzakiapean gazteriaren eta herri oso baten sufrimendua ekarri dute haien mehatxu, erreprezio eta muntaiekin. Jopuntutat izan dute Sakana betidanik. Jarraipena ematen dio zuen atxiloteta bidegabe eta arrazoigabeak urtetan eskualde honek paira-

tu duen zapalkuntzari. Baina erantzuna masiboa izan da, milaka eta milaka pertsona mobilizatu dira Alde hemendik! lelopean, estatu espainiarrari argi uzteko ez ditugula bere indar polizialak gure herrietan nahi.

12 familia gehiago bereizirik, (...) 500 km-tara dituztela sufritzen (...) Baina ez dezatela uste

herria isilduko dutenik, inoiz baino elkartuago dago, borrokatzeko prest, injustizia hauekin bukatzeko prest.

Gazteria indartsu dabil, eta horren beldur dira. Beldur horren ondorio dira kontrolak, mehatxuak... eta tabernetako probokazioak. Errepresioaren kateak herdoil daude, ordea, eta gutxi-fal-

Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • [guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • [kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
**MAKETATZAILEA:** Ruben Imaz Alcaide • [maiketazioa@guaixe.eus](mailto:maiketazioa@guaixe.eus)  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • [publizitate@guaixe.eus](mailto:publizitate@guaixe.eus)  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • [publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano, Eñaut Agirrebengoa Apaolaza  
**ZUZENTZAILEA:** Maria Luisa Zelaia  
**ARGITARATZAILEA:** Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • [fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)  
**DISEINU ZERBITZUA:** GK • Ainhora Etxeberria Pikabea • [gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • [admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

## LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK** 

Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra

**NEGUKO SOLSTIZIO OSPAKIZUNA:** Altsasuko Eguberak taldeak antolatuta, igandean, 18:00etan, Dantzalekun ospakizuna izanen da. Jentilak, momotxorroak, Mari,

gona gorriak, sorginak, Mainamikirri eta beste pertsonaiek parte hartuko dute. Kantua eta sua ez dira faltako.

# sakanerria >>

## SAKANA

### 24 familiek ez dute energia mozketarik izan

Nafarroako Gobernuaren eta enpresa hornitzaileen arteko akordioari esker izan da. Herrialdeko kasuen %3,39 dira Sakanakoak, Nafarroako populazioaren %3,17 gara



Energia-pobrezia eragotzi asmoz, Nafarroako Gobernuak urte hasieran Iberdrola, Gas Natural Fenosa eta CHC Energia enpresekin hitzarmenak sinatu zituen. Eskubide Sozialen lehendakariorde Migel Laparrak jakinarazi duenez, akordio horiek nafarren artean energia-pobrezia eragozteko neurri sortako bat da. Akordio horiei esker 707 familia nafarrek ez dute energia mozketarik izan, haietatik 24 sakandarrak dira. Guztiek ere ezin zituzten euren fakturak ordaindu. Akordioak familia horiek guztiak euren etxebizitzetan oinarritzko beharrak bete eta klimatizazio baldintza egokiak izateko aukera eman du.

Herria	Familia kopurua
Aizkorbe	1
Irurtzun	7
Uharte Arakil	1
Lakuntza	2
Arbizu	2
Etxarri Aranatz	3
Altsasu	8
Guztira	24

## >> Altsasu

### Eskarmentutik indarkeria jasaten ari diren emakumeak laguntzeko taldea



Ainhoa Malaxetxabarria bertaratu ziren emakumeei hizketan.

**Aurretik sexu indarkeria bizi izan zuten emakumeak egun bizi dutenei laguntzeko trebatzen ari dira**

Altsasuko Udalaren Emakumearen Bilgunean, besteak beste, sexu indarkeria jasaten duten emakumeei laguntza ematen die. Hainbat profesionalen laguntza bideratzen da Emakumearen Bilgunean. Baina bertako teknikari Idoia Goikoetxeak azaldu digunez, "pentsatu genuen sexu indarkeria jasa-

ten ari den emakume bat laguntzeko hoberena egoera bera bizi eta gainditu duten emakumeen laguntza litzatekeela".

Zorionez egoera hori gainditu duten emakumeak badaude gure artean. Udal zerbitzuaren ekimenez elkartu dira. Dozena erdi bat dira. Goikoetxeak azaldu digunez, "laguntza emateko esperientziak aparte gaitu behar da. Esperien-

tzia pertsonaetik harago hausnarketara, analisirako eta ulermenerako pausoa eman behar da". Horregatik, otsailaz geroztik hamabostean behin elkartzen dira. Hileko saio batean informazioa jasotzen dute Goikoetxearen eskutik; "haiek jakin behar dute zein zerbitzu eta baliabide dauden, salaketa nola egiten den, nora jo eta hori guztia". Hileko beste saioa hausnarketari eskainitakoa da eta taldea bideratzen duen profesional batekin izaten da; "indarkeria ulertzeko, laguntzeko gaitasuna lortzeko eta abar".

Trebatzen segituko dute, Goikoetxeak esan digunez, "inpaktu pertsonal oso handia dauka. Egoera horiei aurre egiteko eta beste laguntzeko indartzen ari dira". Hala ere, Goikoetxeak azaldu digunez, "modu hain formalean ez bada ere ikasitakoa zabaltzen ari dira". Sei emakume horiek trebakuntza bukatzen dutenean, "helburua haiek talde bat, sare bat, osatzea litzateke". Hori da Goikoetxe-

aren ustea, "zaila" dela aitortu arren, talde autonomo gisa eratzeko bidea ematen saiatzen ari dira. Bitartean, euren trebatze prozesuaren barruan, atzo arratsaldetan, Bizkaian egoera bera bizi izan duten Haize Berria elkarteko Ainhoa Malaxetxabarriarekin elkartu ziren.

#### Teknikariek

Goikoetxearendako "aurtengo programazioko saio bereziena" izan zen atzokoa. "Emakumeen kontrako indarkeriaz hitz egiten eta hausnartzen profesionalak entzuten ditugu askotan. Gutxitan entzuten ditugu indarkeria jasaten duten emakumeak. Eta ez dugu ahaztu behar haiek direla protagonistak. Guk haien eskaerei erantzun behar diegu". Atzo, beraz, indarkeria sufritu duen emakume bat entzun zuten Iortian elkartu ziren profesional eta herritarrek. Ainhoa Malaxetxabarriak bere esperientziaren eta eskaeren lekukotza utzi zuen.

## >>

### Sexu indarkeriaren kontrako plangintza diru-laguntzarekin aurrera atera da



Alkatea eta berdintasun udal teknikaria Gemma Botinekin bildu ziren.

**Nafarroako Kutxa fundazioak egindako 10.000 euroko ekarpenak gaitzeko eta trebatzeko lau programa sustatu ditu**

Emakumeen kontrako indarkeriari, besteak beste, pertsonak gaitzen eta trebatzen aurre egin nahi

dio Altsasuko Udalak. Arlo horretako udalaren sentsibilizazio eta prestakuntza programak hainbat urte darama indarrean. Prestakuntza, esaterako, herriko hainbat talderi zuzendutako saioen bidez egiten da.

Hala, DBHko 4. mailako ikaslekingaztaroan emakumeen kontratatzen den indarkeria eta sexu erasoak zer diren jakiteko trebakuntza jasotzen dute. "Neskek badute bere helburu eta zeregina eta mutilek euren dute". Bestalde, sexu indarkeria kasuak daudenean elkarlanean aritzen den koordinazio taldea ere trebatzen da, honako profesionala hain zuzen ere: osasun etxeak, gizarte zerbitzuak, udaltzainak, foruzainak eta berdintasun teknikaria. Aukera dagoenean beste profesional batzuei

zabaltzen zaizkie saio horiek.

Gazte talde bat ere gaitu zen udan eta haien trebatzetik sortu zen festetan sexu erasoekin kontrako prebentzio kanpaina. Azkenik, sexu indarkeria egoerak jasan eta horiek gainditu dituzten emakumeen talde bat dago.

Gemma Botin Cociña Nafarroako Kutxa fundazioako arlo sozialerako kidea Altsasun izan zen atzo. Javier Ollo eta Idoia Goikoetxea berdintasun teknikariaren eskutik garatutako jardueren berri jaso zuen eta fundazioaren deialdira aurkeztutako proiektua aurtengoaren jarraipena dela gaztigatu zuten. Botinek azaldu zuenez, lagundutako gaiaren garrantzia nabarmendu zuen. "Gure laguntzak proiektuak abiarazteko eta egonkortzeko balio dute".

9 lagunendako  
**TAXIA**



948 500 388 / 629 428 025

**IRURTZUN**



948 576 357



Menua 16 €  
Enpresa bazkari  
eta afariak

Asteburutan zabalik  
948 464 327

655 225 717  
Uharte Arakil

**MAPFRE Altsasu**

948 563 354 · jimazpr@mapfre.com  
San Juan 48 · ALTSASU

**festa zoriontsuak opa dizkizuegu**

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

## » Ihabar

## Dohaintzen bidez sortutako liburutegia

Maialen Huarte Arano

Bizilagunek euren etxeetako apalategiak liburuz hustu eta herriko liburutegia bete dute. Kontzejuauren ideia izan da. “Guztiok etxeko apalategian inoiz berrirakurriko ez ditugun liburuak besteen esku jar ditzakegu”, pentsatu zuten. Eta esan, eta egin. Etxez etxe liburuak eskatu eta herritarrek herriko etxera eramane dituzte. Apalategiak txukundu eta pixkanaka betetzen ari dira. “Mila liburu ingururekin zabaldu dituateak liburutegiak”, adierazi dute liburuzainek. Liburu bereziak, politikak, potoloak, mardulak, finak, interesgarriak, erlikiak, betikokak, berriak, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez.... Denetarik aurki dai-

teke apalategietan begiratuta.

Abenduaren 4an mustu zuten proiektu berria. Izaskun Mujikaren ipuinak entzuten adi-adi izan ziren haur eta helduak. Txokolate-jan goxo batez ere gozatu zuten eta bukatzeko, dokumental bat izan zuten Alfredo Hoyuelosen eskutik: *¿Megrabas con la camara que quiere contar un cuento?* Harrera beroa izan du kontzejua ren ekimen berritzaileak eta hemendik aurrera liburutegiaren helburuak betetzea espero dute: liburuak hartu eta utzi, literaturan barneratu eta bizilagunen arteko liburu-trukeak arrakasta izatea.

Larunbatetan zabalduko dituateak liburutegiak. 10:00etatik 11:00etara aukera izanen da liburu



Mustutze ekitaldian ez zen txokolaterik falta izan. MAIALEN HUARTE

bat hartu eta hamabost egunez etxean izateko. Gero, itzuli edo berriz ere hamabost egunez luzatzeko aukera izanen da. Oraindik

ere liburuak dohaintzan emateko aukera bada, eta horretarako liburutegiaren ordutegian eramaten ahalko dituzte bizilagunek liburuak.

Etorkizunean norberaren liburu horiek berreskuratu ahal izateko izen-abizenak jartzea ere komenigarria da, nahiz, liburutegiko ordenagailuan ere gordetzen diren liburuak euren jabeen izenekin.

### Eguberrietako egitarau oparoa

Aurten ere Ihabarren ez da asperetzeko astirik izanen eguberrietan. Olentzeroren etorrera izanen da gabon gauean. Eta hortik aurrera egunero bada hitzordurik: filmak, ikastaroak, dokumentalak... izanen dira. Eta nola ez, Doneztebe eguna ere ospatuko dute herritarrek abenduaren 26an. Meza izanen da eguerdian eta herri-bazkaria antolatu dute gero. Dantzaldia ere izanen da arratsaldean eta haur txikiak dituzten gurasoek aukera izanen dute euren seme-alabak ludotekan utzi eta bazkarira joan ahal izateko.

## » Olatzagutia

## Urrezko txoriak

**Raul Lopez "Patxu"-k 11 txori aurkeztu ditu Nafarroako Ornitologia Erakusketan-Lehiaketan eta 6 domina ekarri ditu. Horretaz gain, bere txori batek Nafarroako txori onenaren izendapena jaso du**

Nafarroako Ornitologia Erakusketan-Lehiaketaren 50. Urteurren Txapelketa antolatu zuen, aurreko astean, Nafarroako Kanarilarien Elkarte Ornitologikoak Burlatako Uranga Jauregian.

Txori hazleek 955 txori apuntatu zituzten txapelketan. Tartean, Raul Lopez "Patxu" olaztiarrak 11 txori eramane zituen aipatu lehiaketara. Txoriak ostiralean eman zituzten Burlatako Uranja Jauregiara eta

bertan egon ziren ikusgai, larunbatera arte. Epaileek ikuskatu eta epaitu ondoren, larunbatean eman zirensariak. Raul Lopez "Patxu" oso kontentu dago, guztira 7 sari ekarri dituelako. Urrezko bi izendapen, zilarrezko bi izendapen eta brontzezko beste bi izendapen jaso ditu Olaztik txori hazleak. Txoriena oso mundu konplexua da. “500 espezie daude, pentsa. Nik 9 kanario txirrikila edo berderoi eramane nituen, eta bi hibrido edo misto. Txirrikila edo berderoietan bi urrezko izendapen, bizilarrezko eta brontzezko bat jaso ditut. Eta urrezko izendapena jaso zuen kanario isabela txirrikilak edo



Raul Lopez "Patxu", lortutako izendapen eta sariekin. UTZITAKOIA

berderoiak Nafarroako txori onenaren izendapena jaso zuen fauna, exotiko eta hibridoaren atalean” azaldu

digu Patxuk. Horretaz gain, kanario hibridoetan ere brontzezko izendapen bat jaso zuen.

Gustuko duelako, afizioz hazten dituzte txoriak, bereziki kanarioak, Patxuk. “Ez nuen inondik inora izendapen horiek guztiak lortzea eta irabaztea espero. Pozik nago. Txapelketetan sariak izatea asko nabaritzen da. Hazle gehiago dator kizuko txoriak erostera, edo egiten duzunaz interesatzen, txorien balioa igotzen da... Asteburuan Iruñeko txapelketa izango da, eta azken ordura arte ez dut jakin parte hartu ahal izango dudana ala ez” aitortu du.

[www.canaricultoresnavarra.com](http://www.canaricultoresnavarra.com)

Aipatu lehiaketaren inguruko informazioa aipatutako web gunean.

## » Lakuntza

## Historia-memoriari eskainitako asteburua

1936ko estatu kolpea eta ondorengo errepresioa gogoan izanen dituzte asteburuan Lakuntzan. Udalak prestatutako egitarauan Jose Ramon Urtasun Rekalde margolari iruindarraren pintura erakusketa ikusgai izanen da, gaur arratsaldetik igande arra-

tsalderaino. Autobus de la Memoria elkarteak sustatutako erakusketa horretan Urtasunek garai hartako gertakari ilunen inguruko apunte modukoak eskaintzen ditu.

Margolariak berak larunbatean, 19:00etan, egingen den ekital-

dian parte hartuko du. Lakuntzan estatu kolpeak zein eragin izan zuen labor gogoraziko dute 80. urteurrenean. Memoriari eskainitako asteburua despeditzeko, igandean, 19:00etan, Helena Taberna zuzendari altsasuarraren *La buena vida* filma emanen da.

## » Ziordia

## Santa Luzian, kalera



Gaztetxe aurrean ospatu zuten Santa Luzia, txokolate beroa tarteko.

Halaxe atera ziren atzo hainbat ziordiar, Santa Luzia eguna ospatzera. Joan den mendeko 70eko hamarkada erdialdetik ermitarik ez badago ere, ziordiarrek ez dute ospakizuna galdu. Bi hamarkada inguru izanenda berreskuratuzela. Garai batean etxekoan garai-koproduktuak eskaintzen baziren, ohitura moldatuta berri zuten. Atzo 18:30etik aurrera, esaterako, elkartearen txokolatea dastatzeko aukera izan zen, gerora gaztetxe parera eramane zena. Han bertan

taloak jateko aukera izan zuten ziordiarrek. Gainera, Urbasa tabernan odolkiak eta Etxalekun gaztaina erreka dastatzeko aukera izan zen. Guztia udalak ordainduta.

Aurreko urteetan jubilatu elkarteak prestatuta adinduak bazkaltzera biltzen ziren. Elkarteak desegin egin da eta aurten ez da halakorik izan. Udaletik adierazi digutenez adineko ziordiarrekin hizketan ari dira, dituzten premiak jakin eta haiei nola erantzun zehazteko.

## » Unanu

## San Andresetan, festa!

Azaroko azken egunarekin batera, 30ean, San Andres eguna ospatu zuten unanuarrek. Denok bat elkartearen bazkari animatuaz gozatzeko aukera izan zen. Bertan elkartearen ziren herriko adinduak eta nahi izan zuen guztia. Majo bazkaldu ondoren kontu-kontari eta kantari aritu ziren. Giro horrek beste hainbat unanuar erakarri zituen. San Andresetan omenezko ospakizuna duela urte batzuk hasi ziren ospatzen.



Unanuarrek mahai inguruan ospatu zuten San Andres. UTZITAKOIA.



## » Altsasu

## Klinikarendako diru-saila aurreikusitako baina handiagoa izanen da

**Parlamentuak 120.000 euro gehiago ematea onartu du, beraz, aurreikusitako baina 250.000 euro gehiago jasoko ditu 2017an**

Nafarroako Parlamentuko Ogasun eta Finantza Politika Batzordeak Nafarroako aurrekontuen lege proiektuari aurkeztutako emendakinak aztertzen ari da egun hauetan. Departamentu bakoitzaren aurrekontuak kontuan

izanik, sailka aztertzen dituzte taldeen proposamenak. Atzo egindako bilkuran, esaterako, osasun arlokoak aztertu zituzten.

Haietako bat Josefina Arregi klinikari diru gehiago emateko emendakina zen. Gobernuari eusten dion laukoak proposatu eta talde guztiek aho batez onartu zuten. Aurrekontuen zirriborroan aurreikusia zeuden 130.000 euro-



Gobernuko ordezkariak klinikari

ei 120.000 euro gehiago gehitu zaizkio, 250.000 euro gehiago. 2017an

guztira 1.550.950 euro jasoko ditu klinikak.

Diru kopurua handitzearekin "klinikak duen kontzertuak aurreko urteetan izan duen diru-laguntza eskasa arindu nahi da". Aldi berean, Nafarroako Parlamentuak klinikaren inguruan onartutako azken mozioa betetzen da. Haren arabera, osasun publikoarendako ezinbesteko baliabidea da klinika eta gobernuak "beharrezko dirua eman behar dio, dementzien eta alzheimerraren inguruan dauden beharrak eta klinika publiko bihurtzeko aukerak aztertzen dituen bitartean".

## Erabakitze eskubideari buruzko galdeketa

## » Arbizu / Olatzagutia



## Galdeketa prestatzen hasiak

Udaberriak aberan herri galdeketa egin nahi du Arbizun Gure Esku Dago. Hura behar bezala prestatzeko aurreneko bilera abenduaren 2an egin zen. Deialdiari adin guztietako 40 bat arbizuarrekerantzun zioten. Gure Esku Dago-

ren erronken berri jaso zuten. Lehenagaldetako errolda osatzen duten 850 bat herritarren artean galdeketa eraldetako babes eskuratua nahi dute. Erroldaren erdiaren babes lortze adute helburu.

Bestalde, Olatzagutiko Gure Esku Dago taldeak bere burua aurkeztuko du bihar, 12:30ean, herriko kultur etxean.

## » Irurtzun

## Galdeketa motorra martxan

Nafarroako egunaren eguerdian 60 bat irurtzundar udaletxean elkartu ziren. Irurtzunge Gure Esku Dago dinamika izenean Txiki Iriartek eta Ainhua Dorronsorok egin zieten harrera. Lehenik, erabakitze eskubidearen inguruan herrian egindako jardueren berri ematen zuten bideo bat ikusi zuten. Bertaratuek giza katean edota kriseluen gauean bizitako gogoratze-ko aukera izan zuten. Iriartek eta Dorronsorok Irurtzunge Gure Esku Dagoen dinamika aurkeztu zuten eta, despedituzeko Jon Zirizak tal-



dearen nondik norakoa azaldu zuten. Talde argazkia egin ez despedituzen bilkura.

Heldu den urteko udaberriak aberan egin nahi dute galdeketa Irurtzunen. Horretarako, lehenik, irurtzundarren %10en babes jaso

behar dute sinadura moduan. Hau da, 16 urtetik gorako 1.820 irurtzundarren 182 sinadura jaso behar dute. Hala ere, ahalik eta babes gehien lortzen saiatuko da taldea. Sinadurak heldu den astean hasiko dira biltzen.

## » Ziordi

## Galdeketa bidea ibiltzen hasiak

Santa Luzia egunarekin, asteartean, aurkeztu zen Ziordiko Gure Esku Dago. Gaztetxe pareko zelaietan bi kide taldearen asmoen berri eman eta Etorkizuna dantza taldeko kideek Gure Esku Dagoen kantuan oinarritutako koreografia dantzatzu osatu zen ekitaldia. Kamixetako eta eguberritako zozketako txartelak ere salgai izan ziren. Aurkezpena ehunen bat pertsona hurbildu ziren.

Ziordiko Gure Esku Dago Enekek azaldu digunez, festetarako batzar batean erabaki zuten

egitasmoari heltzea. Ordutik asteartera bitartean taldea osatzeko jende bila aritu direla gaztigatu digu. Alaitzek jakinarazi digunez 10 laguneko taldea bildu dira, "baina oraindik jende bila ari gara". Enekek gaineratu duenez, "ideia taldea jende desberdinez osatzea da. Jende desberdina lortuz gero baliteke beste batzuk uztea, gehiago ikusia dagoen jendea edo".

Abenduan eta ilbetez sinadurak biltzen hasiko direla aurreratu digu Alaitzek. Erroldaren

%10 eskatzen du Gure Esku Dagoen protokoloak, "baina pentsatzen dugu zenbat eta sinadura gehiago bildu orduan eta arrakastatsua izanen dela galdeketa" zehaztu du Enekek. Galdeketa errolda 350 bat ziordiarrek osatuko dute. Data ez badakite ere, Alaitzek aurreratu digu maiatza edo garagarria aldean egin nahi dutela erabakitze eskubideari buruzko galdeketa. Sakanan beste herri gehiagoetan egin behar dutela eta haiekin harremanetan daudela gaineratu du.



Dantzariak Gure Esku Dagoen kantaren doinura dantzatu zuten.

**ZELAI KAFETEGIA**  
848 471 382  
639 379 602  
ALTSASU  
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

TURROI GOXO-GOXOAK ETA ERREGETAKO ROSKOAK HEMEN

**PORTUKO OKINDEGIA**  
ogien artisauak

Altsasu  
948 563 822  
Lantegia  
948 467 153  
Etxarri Aranatz  
948 460 988

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta

Asteleheneetik ostiralera  
**Eguneko menua 9€**

Asteburuetan  
**Menu berezia 25€**

948 467 876 • Altsasu

## SAKANA

# Eguberritarako, magra

**Sakanako dendarien elkarteak 40 urdaiazpiko banatu ditu**

Azarokote kanpainak sakandararak ibarrean erosketak egitera animatu nahi zituen. Aurreko hilabetean ibarrean erosketak egin dituzten guztiek euren datuekin txartela bete behar zuten. Halako 10.000 baino gehiago jaso ditu Sakanako dendari, ostalari eta zerbitzuen elkarte-

ak eta haien artean 40 urdaiazpiko zozketatu zituen. Zortedunek euren saria atzotzoz zuten. Bestalde, eguberri saioa abiarazteko elkarteak Altsasuko Foru plazako intxaurrenaren argiztapena abenduaren 2an mustu zuten. Txokolata edo Xurrut elkarteak kideek eskainitako pintxo potea dastatzera jendea poliki bildu zen.

## SARITUAK



**Lazkaoko** Jose Bermejo Peguero. **Idiazabalgo** June Sudupe Alos. **Ihabarko** Kontxi Astiz Auzmendi. **Uharte Arakilgo** Eduardo Fernandez Arrastia. **Lakuntzako** Gurutze Azkona, M<sup>o</sup> Carmen Ochoa Sanz eta Pilar Tejeria Mendizabal. **Arbizuko** Inma Maiza Berastegi eta Oihan Razkin Azpiroz. **Etxarri Aranazko** Eli Etxeberria Aranburu, Eneka Maiz, Juana Jaka Garmendia eta Piedad Aiestaran Goñi. **Bakaikuko** Pili Goikoetxea Fernandez eta Txaro Ondarra Erdozia. **Urdiaingo** Edita A. Juarez, Esther Esnaola Irigoien, Marisol Galarza eta Mikel Arbizu Aristizabal. **Altsasuko** Aitor Bereziartu Antolagirre, Garazi Ieregi Ramirez, Jon Arellano Preciado, Juan Carlos Arnanz Amoztegi, Juan Luis Claver Horna, Jokin Zelaia Olarbide, M<sup>o</sup> Isabel Lilapo Zelai, Maria Nines Jarones, Mertxe Azazeta, Milagros Aldasoro Sarasua, Mirentxu Goikoetxea Aldasoro, Nani Iriarte Goikoetxea, Lourdes Solis Herrera, Peio Diaz Goikoetxea, Pili Somalo Alfaro, Urbana Vinagre eta Ana Alonso. **Olatzagutiko** Patricia Arregui Perutxena eta Toni Ezkurra Noin. **Eta Ziordiko** June Alzelai Urdiain eta Jone Arbizu Andueza.



## Eguberrietan txartelarekin abantaila gehiago

**Beleixeguaixe txartela erabiltzen dutenak ohiko deskontuez aparte 30 euroko hiru erosketa txartelen zozketan sartuko dira**

Guaixe fundazioko laguntzaile guztiek hala direla identifikatzen dituen txartel bana dute. Txartelak ibarreko 80 establezimenduetan baino gehiagotan erosketak egiterakoan abantailak eskaintzen ditu. Eta eguberrietan beste aukera bat batzen zaio. Abendua-

ren 2tik ilbeltzaren 5a bitartean erosketak egitean Beleixeguaixe txartela erabiltzen duena zozketa batean sartuko da: 30 euroko hiru erosketa txartel. Horretarako zer egin behar den? Errazasko: ordaintzerakoan txartela erakutsi eta datuekin eta harremanetarako telefonoarekin papertxo bete. Ilbeltzaren 12an egingen da zozketa eta hurrengo eguneko Guaixe astekarian jakinaraziko dira ira-

bazleak.

Beleixeguaixe txartelak asmo bikoitza du. Alde batetik, Sakanako euskarazko hedabideak sustatzea. Horretarako, txartela eskuratzen dutenak urtero kuota bat ordaintzen dute. Gutxienekoa 50 eurokoa da. Baina errenta aitorenaren bidez ekarpen horren %80 itzultzen da. Horri establezimenduetan eskaintzen diren abantailak gehitu behar zaizkio. Txar-



Beleixeguaixe txartela eskuetan

telaren beste asmoa ibarreko ekonomian eragitea da eta txartela dutenak Sakanako establezimen-

duetan erosketak egitera bulkatu. Horrela, dendaz betetako kale biziak izanen ditugulako.

## Olatzagutia

### Ikustekoak!

**Sakanako belenzaleen elkartearen jaiotzen erakusketa ilbeltzaren 8ra arte, astelehenean larunbatera, 18:00etatik 20:00etarara eta, domeketan eta jai-egunetan, 13:30etik 14:30era eta 17:30etik 20:30era Olatzagutiko belenzaleen egoitzan**

Igandean zabaldu zituen ateak 15. urtez Sakanako belenzaleen elkartearen jaiotzen erakusketa. Apirilaren 11n hasi ziren laban zorrotza eta eztainua urtzeko gailua eskutan hartzen Felipe Orabengoa, Jesus Mari Garmendia, Katy Mayor, Luis Borrega, Javier Beunza, Emeterio Galan, Patxi Agirre, Pako Sanz eta Victor Rodriguez. Ondoren, pintura, lurra, kola edota goroldioaren txanda izan zen. Guztia porespanta pazientzia handiarekin lantzeko. Ereduak errealitate hartzen dituzte. Hala, aurtan, jaiotza batean Kantabriako Ason eta Barcena la Mayor herrietako etxeak daude ikusgai.

Orain euren lanak erakusten badituzte ere, haiek egiteko etengabeko prestakuntza jasotzen ari dira. Esaterako, Antonio Pigozzi maisu italiarrarekin ikasten ari zirenen Zaragozan otsailean. Harekin mendiak porespantarekin eta eskaiolarekin nola egin ikasi zuten eta ikasitakoa aurtengo jaiotzetarako batean ikusgai dago. Dozena bat daude ikusgai, haietatik bost dira aurtan eginak. Beste baten berezitasuna da kortxoak egin dagoela. Euren begirada adituak



Sakanako belenzaleen elkarteak

baten eta bestearen lan moldeak bereizten ditu. Bisitariak, ordea, lehen begiradan ezin du jaiotza bakoitzean dagoen guztia ikusi, detaile ugari baitituzte.

### Elkartea

40 bat kide ditu gaur egun eta nahi duen guztiak dukide egiteko aukera. Baita jaiotzak egiteko ere. Langintza horretan Aguraingo jubilatuek elkarteari lagunduko diote otsaila erdialdean. Internetek gaur egun harremanak egiteko bideak erraztu ditu eta horri esker bateko eta beste belenzaleen elkarteekin harremana dute sakandarrek. Hori dela eta, larunbatean Sevillara joanen dira hango jaiotzak ikusi eta handik ikasitera. Olatzagutitik ere sakandarrek

aparte urrutiko bisitariak ere etorriko dira aurtan.

Bestalde, Sakanako belenzaleen elkarteak egindako jaiotza bat Beasainen dago ikusgai eta baliteke beste bat Josefina Arregi klinikan bukatzea. Elkartea laguntzen duen Olatzagutiko jubilatuek elkarteari lagunduko diote jaiotza bat sortu dute. Udalaren laguntza jasotzen dute.

## Zozketa

Erakusketara joaten direnak jaiotza baten zozketarako txartelak erosteko aukera izanen dute. Haren bidez elkartea finantzatu egiten da.

## SAKANA



### Errekondorekin herri txikien etorkizunaz

**Asteartean, 17:00etan, Unanuko Danok bat elkarteak**

Sakanako Garapen Agentziak lehen sektoreko beste eskualdeetako esperientziak ezagutzeko Laborantza Foroa antolatu du. Foroaren laugarren saioan herri txikien etorkizuna, haien aukerak eta erronkak izanen dituzte hizketagai. Tamaina txi-

kiko herrien garapen prozesuetan aditua den Jakoba Errekondo gonbidatu dute astearteko saiora. Laborantza Foroaren aurreko saioetan honako esperientziak ezagutarazi dituzte: Ipar Euskal Herriko Etxe Ekoizleen Elkartearen, Idokiren, lan egiteko modua; Ximaurpila elkarteak kideek bio-ongarrien inguruko azalpenak eman zituzten eta Mugarik Gabeko Albaitariak taldeak bertako ekoizleak etajangelak elkarlanean egitasmoaren berri eman zieten.



### Kamioiendako bidesariak onartu ditu Gipuzkoak

**2018tik aurrera N-1 errepidea erabiltzen duten kamioiek ordaindu egin beharko dute**

Gipuzkoako Batzar Nagusiek Etzegarate eta Irun arteko errepidean kamioiei bidesariak kobratzeko foru araua onartu zuen herenegun. Era-

bakitakoaren arabera N-1 errepidean erabiliko duten kamioiek ordaindu egingen dute. Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaintzeko hiru eremu zehaztu ditu eta haietan jarritako arkuen azpitik pasatzen den heinean ordaindu beharko du kamioilariak. Gipuzkoar gidariek gehien egiten duten Idiazabala eta Andoain arteko errepide tartea bidesaririk gabe utzi dute.

Tartea	Km	Kamioi handiak*/€	Kamioi txikiak*/€
Etzegarate-Idiazabal	7,45	4,95	4
Andoain	2,2	0,85	0,7
Andoain-Astigarraga	10,39	4,15	3,4
Gipuzkoa zeharkatzea	9,95	8,10	

\*Kamioi handiak 12 tonatik gorakoak dira, txikiak, berriz, 3,5 eta 12 tona artekoak.



## Altsasuko ferietako liskarraren ondorengoa

## Gurasoek presoan askatzea eskatu dute

Ferietako liskarragertatu zenetik bi hilabete eta Guardia Civilak sarekada egin zuenetik hilabete pasa denean, auzipetu guztien gurasoek prentsa oharra zabaldu dute. Hartan, lehenik eskatzen dute, “auzibideak irauten duen bitartean, gure semeak espetxetik ateratzeko, ondo dakigulako ez dagoela haiek ihes egiteko inolako arriskurik”. Gogorarazi dute euren kabuz behin baino gehiagotan aurkeztu zirela deklarazioa ematera.

Horrekin batera, auzipetuen gurasoek eskatu dute “kasua epaile naturalera itzultzea, Nafarroako 3. Instrukzio epaitegira, han hasi baitzen instrukzioa Foruzaingoaren txostenaren bidez eta epaile horrek jaso zuen Guardia Zibila egindako lehen txostena”. Era berean, “gertaerak erabat argi-

tzea eta auzi ekin bideetan proportzionaltasuna” eskatu dute.

Euren seme-alaben oinarriko eskubideak urratu direla uste dute gurasoek. Bi aipatzen dituzte. Lehen, errugabetasun presuntzioa; “epaituak izan baino lehen epaituak izan dira”. Bigarrena, intimitatearekiko eskubidea, “izen abizenak, argazkiak eta beste datu pertsonal batzuk argitaratu dira”. Hedabideetara izandako autoen eta epaitegiko aitoren filtrazioak salatu dituzte.

**Kezka**

Sarekadaren ondoren hainbat epaile ezagunek kasuaren inguruan esandakoak ere gogora ekarri nahi izan dituzte gurasoek: Baltasar Garzonek “gehiegizko esku hartzea” egon dela esan zuen; J. A. Martin Pallinek “neurritz



Auzipetuen gurasoek Nafarroako Parlamentuan politikariei euren eskaerak azaldu zizkieten. UTZITAKOIA

kanpokotzat eta errealitate sozialetik kanpokotzat” jo zuen eta “Auzi Penalean oinarrikoa den proportzionaltasun printzipioa urratzen ari da”. Gurasoek diotenez, “bide kritikoa honetan sakondu beharra dugu, zentzugabezia honekin bukatzeko”.

Auzipetutako gurasoek “kezka” azaldu dute uste dutelako “gure seme alabak erabiliak izaten ari direla, eta ez dugu horrelakorik ulertzen. Beste antzeko kasu batzuetan, gertatu den tokiaren arabera, tratamendua ez da berdina izan. Ez dugu

gure seme alabak martiritzat hartzea nahi, ez heroizat, gaizkiletzat edo txotxongilotzat, eskubideak eta betebeharrak dituzten pertsonatzat baizik”. Azkenik, jasotako babes eta elkartasun keinu guztiak “bihotz-bihotzez” eskertu dituzte.



## Espetxeratzearen kontrako helegitea astelehenean aztertuko dute

**Gazteek asteartean Espainiako Auzitegi Nazionalera joan beharko dute. Herrietan kontzentrazioak egingen dira**

Ferietako liskarraren ondorioz Soto del Realen eta Alcala Mecon preso dauden zazpi altsasuarrek espetxeratzearen kontrako helegitea jarri zuten. Espainiako Auzitegi Nazionalera zigor-arloko salako 4. sekzioak aztertuko du Carmen Lamelak zazpi altsasuarrei jarritako baldintzarik gabeko eta fidantzarik gabeko espetxeratzea.

Bestalde, auzipetuak astearte-



Altsasuarrek herenegun argazki erraldoia egin zuten. Sare sozialetan Entzun Altsasu profilak zabaldu dituzte.

an Espainiako Auzitegi Nazionalera agertu beharko dute. Lamela epaileak auzipetze autoaren berri emanen die auzipetuei. Sare-

kada izan zenetik presoan askatasuna aldarrikatzeko Altsasuko udaletxe parean kontzentraziojendetsuak egin dira egunero. Kon-

tzentrazio horiek asteartera arte luzatuko dira. Asteartean kontzentrazioa beharrean, Iortia kultur gunetik giza sareak hedatuko

dira eta atxilotutako enxeetatik pasako dira. Gero hilabetetako 14. egunean egingen dira, sarekada izan zen hilabeteko egunarekin batera.

Bide batez, altsasuarren askatasuna eskatzeko Sakanako hainbat herritan kontzentrazioak deitu dira astearterako. 19:00etan Irurtzango, Lakuntzako, Arbizuko, Etxarri Aranazko, Bakaikuko eta Iturmendiko plazetan egingen dira. Eta, 19:30ean, Urdiaingo, Olazagutiko eta Ziordiko plazetan izanen dira elkarretaratzeak.



## PPren salaketa

Ferietako liskarrean guardia civil batekin zegoen emakumeetako baten gurasoek taberna bat dute. Nafarroako PPko parlamentuko bozemaile Ana Beltranek azaldu duenez, “antza, Espainiako Auzitegi Nazionalera ezker abertzale erradikalekoen partetik jazarpen kanpaina biolentoa pairatzen ari direla kontatu dute, baita negoziarioan eta autoan kalteak izan dituztela”. Beltranen iritziz horrek frogatzen du “gezurra dela Altsasun bakean bizi eta elkarbizitza izan daitekeenik. Herritarren zati bat beldurtuta bizi da”. Beltranek Altsasuko Udalari eskatu dio guardia civilaren bikotearen gurasoak babes ditzala. “Egia bada herrian elkarbizitza baketsuan sinisten dutela, mundu guztiak arazorik gabe Altsasun bizitzea sustatu nahi badute, baita, jakina, Guardia Civilaren agenteak eta haien familiak, alkateari eta udalari familia hauek babesteko eskatzen dugu”. Aldi berean, jazarpena eta erasoak egin dituztenen kontrako neurriak hartzeko eskatu du popularrak.



## Ospak desmilitarizazioa eta errepresioaren akabera eskatu du

Altsasun azken bi hilabeteetan bizitakoaren ondoren Ospa mugimenduak ohar bidez bere iritzia plazaratu du. Ospako kideek diotenez, “herri osoak sekulako kriminalizazioa bizi du, imajinatuko ez genituzkeen mugak gainditu ditu”. Azaldu dutenez, herria “haien mesederako errepresio-laborategi moduan baliatu dute”. Osparen errepresioaren kontrako eta desmilitarizazioaren aldeko aldarrikapenak eta jarduerak “egitura terrorista” baten barruan kokatzeko saioa “gure dinamika kriminalizatzeko” ahalegintzat jotzen dute. Eta gogorarazi du euren jarduerak “erabat publikoak, legalak eta, nola ez, erabat legitimoak” izan direla.

Mugimendutik gogorarazi dute, batetik, beti herri erakundeek bermatutako lege baimenak izan dituela. Ospa eguna modukoak udalaren jai batzordetik pasatzen zela gogorarazi du, “honela frogatuz gure helburuekin guztiz



2014ko Ospa Egunaren irudi bat.

ados egonda edo ez, herritar bezala adierazteko dugun eskubidea errespetatzen zutela”. Eta, bestetik, antolatutako ekitaldiak “herrira zabalik” izan direla, helburua izanik “bizilagunen indarra batzea, era honetan, ezinbestekoa deritzogun helmuga lortzeko, etorkizun libre bat: alde hemendik! stop errepresioa!”

**Gakoa**

Sistemaren “makinaria errepresioaren” aplikazioak “maila guz-

tietan jasaten dugun kontrol soziala justifikatzen” eta “militarizatuta dagoen paisaia normalizatzen” duela gaztigatu du Ospa mugimenduak. Mugimenduaren desmilitarizazio ekitaldien kontra egin eta altsasuarrek eta erakunde-ardura dituztenak Espainiako Auzitegi Nazionalera eraman izana “termino politiko baten mendeku beharra” dela nabarmendu du. Gaineratuz, desmilitarizazioa “denbora gehiegiz jasaten gabiltzan gatazka politi-

ko honi irtenbidea emateko gakoa” dela.

Ospa mugimenduak salatu du “gu Altsasun elkarbizitzaren kontrako gisa aurkezteko saiakera”. Altsasuar askeak Altsasu askean izateko nahia azaldu dute eta kontrolak, isunak, jarraipenak eta mehatxuak salatu ditu. Etorkizun “aske” baten alde “okupazio militarrik gabeko eta kanpo injerentzia gabeko etorkizuna” lortzeko “borroka Euskal Herriko txoko guztietan piztea nahi genuke”.



## » Altsasu

## 25 urte plazako intxaurrondorik gabe

**1991ko abenduaren 15eko eguerdian kendu zuten 250 urteko historia zuen intxaurrondo zaharra**

Altsasuren azken aurreko hiru mendeetako lekukoa. Zainak Otairainokoak omen zituen. Zain horiei dudako zintotasuna zutenen jokera zentzuzko efektuak egotzen zizkieten batzuk: etxeren bateko sukaldeko lurra jasoz edota lur-ematetarako zuloak egitea zailduz. Beste kontakizun batzuk diote estatu kolpearen ondoren enborrean ikus zitezkeen objektua karlistadako zela. Bestelakoetarako balio izan zuen intxaurrondoak: musika bandak jotzen zuenean gazteek

kioskoaren inguruan dantzatzeko zuten; kioskoaren eta zuhaitzaren artean pasa estutu egiten zen eta aukera hori baliatzen zuten mutilak neskengana hurbiltzeko. Intxaurrondoaren omenezko koplak eta jotak ere izan ziren. Kontuak kontu, adin guztietako altsasuarren hitzorduen tokia zen.

Herriaren ikur zen ahalik eta agurjendetsuena emateko domeka eguerdia aukeratu zuen udalak. alkatea buru zela, udala Foru plazara txistulariak lagunduta joan zen. Egitaraua kioskotik segituko zuten haiek, intxaurrondoari azken omenaldia izan zena. Txaloak eta

malkoren bat izan ziren ekitaldian. Rafael Aiarrak angelusa errezatu zuen lehenik. Altsasukodantzari taldeko kideek aurrekoa dantzatu zioten. Zazpi dantzari bikotek zortziko dantzatu zuten.

Javier Goikoetxeak intxaurrondoaren omenezko olerkia aurkeztu zuen 1973ko herriko literatur lehiaketan eta hura irakurri zuen Enrique Zelaia. Akordeoiarekin ere pieza bat jo zuen. Azkenik, txistulariek *Agur jaunak* doinua jo zuten. Hori egiten ari zirela Oraa enpresako garabia batek intxaurrondo jaso eta kamioi batean jarri zuen. 5.020 kilo. Altsasuko ikurra kamineroen



Kioskoaren aurrean zegoen intxaurrondo 1991. urtean kendu zuten.

egoitzan utzi zuten lehortzen. Mozteak eta kontserbazio tratamendua orduko 50.000 pezeta (300 euro) balio izan zituen. Kioskoaren bestaldean

beste intxaurrondo bat jarri zuten. Hasierako urteetako eraso ugari egin zuten. Aurre eginez aurrera egin du. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com

**Jose Mari Artola**  
"Aitona"



Ahazten ez dena,  
ez da inoiz hilko.

**Etxekoak**

**Eusebio Lazkoz Razkin**  
V. urteurrena

Gure ondotik joan zinen baina  
ez gure bihotzetik. Beti jarraituko  
duzu gurekin. Maite zaitugu.

**Emaztea, seme-alabak eta bilobak**

**Oroigarriak**



**948 564 275**



Eskertzak eta eskelak  
osteguneko goizeko  
11:00ak arte jasotzen  
ditugu.  
**Bidali mezua**  
[eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)  
era edo hots egin **948 564 275** telefonora

**Rafael Lacunza Castejón**  
"osaba Rafael"



Izarren hautsa egun batean  
bilakatu zen bizigai

Arbizun, 2016ko abenduaren 11n.

**Rafael Lacunza Castejón**



Goian bego.

**Zato eta Esther**

Abenduaren 11n hil zen Arbizun.

**Martin Balda Artola**  
I. urteurrena

Nun hago, zer larretan  
Urepeleko artzaina,  
Mendi hegaletan gora  
oroitzapen den gerora  
ihesetan joan hintzana.  
Beti gure bihotzien ionko za.

Unenun abenduaren 13an.

[guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)

**NORBANAKOEN IRAGARKIAK**

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en **doan**  
Guaixe astekarrian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,  
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

**HARREMANETARAKO**

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

**Oharra**  
**Odol-emaileak.** Abendua: Arbizun Iean, 17:00-18:00 eta Lakuntzan 19:45-20:45

**Josefina Arregui Klinikako bazkidea izan nahi baduzu,** urtean 12€ edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago [amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com) edo [amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com](http://amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com)

**Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua.** Sakanako Enpresari Elkarteak langabeei eta lan bila dabil-tzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

**Lehiaketak**  
**Mikro-ipuinen lehiaketa.** Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleei zuzenduta. Ipuinek gehienez 100 hitz izan

behar dituzte. Lanak abenduaren 31ra arte aurkeztu daitezke e-posta honen bidez: [mikroipuinak@euskokultur.eus](mailto:mikroipuinak@euskokultur.eus). Eusko Kultur Fundazioa eta Pamiela.

**Lana-negozia**  
**LAN ESKAINTZA**

**Ordenagailutik aplikazioak jais-terko** lana eskaintzen da, etxetik aritzeko. Tel 676 51 29 18 eta 618 81 14 50

**Oparitakoak**  
Border Collie txakurkumeak oparitzen dira. Tel 699 780 772

**Ikastaroak**  
Merkataritza eta Marketing, Arbizun. Formakuntza osagarria, Altsasun. Informazioa: [www.empleo.navarra.es](http://www.empleo.navarra.es)

**JAIOTZAK**

- **Erik Daniel Lepsa,** azaroaren 13an Ziordian.
- **Laia Vazquez Vega,** azaroaren 29an Altsasun.
- **Sara Martin Garcia,** abenduaren 2an Irurtzun.
- **Elai Larraza Imaz,** abenduaren 3an Altsasun.
- **Mouhamadou Lamine Fadel Ndiaye,** abenduaren 3an Irurtzun.
- **Juan Bryan Torres Jimenez,** abenduaren 3an Irurtzun.

- **Izaro Sotil Garate,** abenduaren 5an Irurtzun.
- **Haizea Lizarraga Vigo,** abenduaren 7an Lakuntzan.

**HERIOTZAK**

- **Crispina Ostiza Goikoetxea,** abenduaren 3an Urdainen
- **Jose Maria Salgado Austri,** abenduaren 8an Altsasun
- **Rafael Lakuntza Castejón,** abenduaren 11n Arbizun

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.



## AUTOMOBILISMOA

**FERNANDEZ ETA ASKARGORTA ALDEA-NUEVA EBRON:** Abenduaren 4an 39 autok osatutako Rallysprintean Aitor Fernandez

eta Iker Askargorta 11.ak sailkatu ziren, meritu handiz. Javier Goikoetxea kopilotua 3.a izan zen, Txema Uzkudunekin.

## kirola &gt;&gt;

## Pilota

## Binakakoa: Ezkurdia punturik gabe eta Zabaleta bakarrarekin

Elezkanok eta Zabaletak asteartean lehen puntua lortu zuten Artola lesionatu eta bertan behera geratutako partidaren. Ezkurdiak eta Merinok Oinatz eta Larunbe izango dituzte aurkari bihar Iruñean

Binakako 2. jardunaldiko emaitzak

Aimar-Untoria **22** - Elezkan-Zabaleta **19**  
Mendizabal-Tolosa **11** - Artola-Albisu **22**  
Iribarria-Rezusta **22** - Ezkurdia-Merino **10**  
Oinatz-Larunbe **22** - Urruti-Beroiz **13**

## Binakakoa. 3. jardunaldiko partidak:

**Elezkan-Zabaleta 10 / Artola-Albisu 11** (asteartean, Artola lesionatu zen)

**Iribarria-Rezusta / Mendi-Berriola** (ostiralean, 22:00etan, Oñatin. ETB1)

**Oinatz-Larunbe / Ezkurdia-Merino** (larunbatean, 17:45ean, Labriten)

**Aimar-Untoria/Urrutikoetxea-Beroiz** (igandean, 17:00etan, Bilbon. ETB1)

Ezkurdiak eta Merinok oraindik ez dute punturik bildu Binakakoan. Larunbatean Iribarriak eta Rezustak 22 eta 10 irabazi zieten, 40 minutu eta 271 pilotakada izan zituen partida laburrean. Berez indartsuak badira, larunbateko pilota biziagiekin are menperaezinago izan ziren gipuzkoarrak.

Binakako 3. jardunaldia asteartean hasi zen Urretxun, Santa Luzia egunean. Elezkanok eta Zabaletak euren lehen puntua lortu zuten, baina ez gustuko moduan. Izan ere, Artola eta Albisu 9 eta 11 aurreratuak zeudenean, pilota bati ematerakoan ezker sorbaldan kolpe gogorra jaso zen Artolak eta partida bertan behera geratu behar izan zen. Bestalde, 3. jardunaldian Ezkurdiak eta Merinok Oinatz Bengoetxea eta Larunbe izanen dituzte aurkari larunbatean Labriten. Punturik gabe, lehenak, eta jokaturiko bi partidak irabazita, bigarrenak, zalantzarik gabe jokoan asko izango da bihar Iruñean.

## Triatloia

## Sakana Triatloi Taldearen asanblada

Igandean, 17:00etan, Altsasuko Gure Etxean

Sakana Triatloi Taldeak asanblada orokorra egingo du igandean, 17:00etan, Altsasuko Gure Etxean. Taldeko kideak gonbidatu dituzte asanbladara, eta baita hurrengo urtean taldeko kide izan nahi dutenak edo triatloian interesa dutenak. Izan ere, helduden urtean federatu nahi dutenei deialdi berezia egindietaldea, guztia behar bezala lotzeko.

## Kiroldegia

Mankomunitateak Ziordian burututako ekitaldian, sariak "sorpresaz" hartu zituztela eta "oso kontentu" zeudela adierazi zuten 2015-2016ko Sakanako Kirolari Onenek

Ostiralean Ziordiko udala txiki, oso txiki geratu zen 2015 eta 2016ko Sakanako Kirolari Onenen sari emate ekitaldirako. Mankomunitateko Kirol Zerbitzuko Amaia Gerrikagoitia teknikariak nabarmendu zuenez, epai mahiarendako zaila izan kirolari onenak aukeratzea "Sakanan merituak dituzten hautagai asko" daudelako. "Izendatutakoek oso pozik hartzen dituzte sari hauek; batzutan ez dute batere espero, eta oraindik gehiago bizi dute saria. Urte askotako lana saritu nahi dugu, beraien esfortzua eta kirolari eskaintzen dioten bizia" nabarmendu zuen teknikariak.

## Sakanako kirolaririk onenak

**18 urtetik beherakoak: Ailetz Lasa, Josu Etxeberria eta Anne Lapuente** Lehendabizikoz sari bat konpartitua izan zen. 18 urtetik azpiko gizonetako saria jaso zuten Ailetz Lasa eta Josu Etxeberria 16 urteko txirrindulariek. Aralar eta Burundak klubetan dabilta. "Biek merezi dutesaria, kadeteetan puntan ibili direlako. Kiroltasunaren saria ere izan nahi du sari honek, kirol baloreak bulkatzeko" nabarmendu zuen Gerrikagoitia. "Biei errekonozimendua egitea polita izan da. Hurrengo urtean jubiletara pasako gara eta salto handia izango da" adierazi zuen Etxeberriak. 18 urtetik beherako saria Anne Lapuente ziordiarrek jaso zuten. 13 urteko irristalariak pozik jaso zuten saria bere jaioterrian.

**18-35 urte artekoak: Javier Zeberio eta Izaskun Beunza** Javier Zeberio mendizale bakaikuarrak "oso pozik" hartu zuen izendapena, sorpresaz, "espero ez zuelako". Cho Oyu igo duen lehen sakandarra izan da (8.201 m), oxigenorik eta sherparik gabe. Berarekin batera bere espedizio kide Joanma Romero valentziarra zegoen Ziordian. "Igoera ona izan zen, arraroena izan zen dena horren ongi atera izana" zioen bakaikuarrak. Pena bakarra Romero gailurretik 100 metrora gelditu izana izan zen, baina valentziarra kontentu zegoen. "Zeberiorekin espedizioak arrakasta izan



Sakanako 2015-2016ko kirolari onenak. Kategoria ezberdinetan 8 sari eta 2 aipamen berezi eman zituen Mank-ek.

zuen eta oso kontentu nago. Ezin denean gelditzen jakin beharra dago ere" aipatu zuen. Izaskun Beunza korrikalari olaztiarrak onartu zuenez "sorpresaz hartu zuen saria, ez nuelako espero. Harrituta nengoen eta pixkat lotsatuta ere, merezita edo ez, bakotzak ahal duguna egiten dugulako. Baina gero pozik". Duela 5 urte hasi zen lehiatzen eta onartu zuenez, "nire buruarekin inorenkin baino konpetitiboagoa naiz". Beste Iruña taldean dabil eta ilbeltzean Nafarroako Kros laburrean eta luzean arituko da. "Ea Beste Iruñaok talde bezala Espainiakora joateko sailkatzen garen" gaineratu zuen.

### 35 urtetik gora: Joxemari Mercero eta Arantzazu Larrañaga

Joxemari Mercero, akaso, txalo gehienak bildu zituen. 77 urtekin oraindik aktibojarriztendu Unanuko korrikalari honek. "Osopozik nago. Hau niretzat gehiagi da. Sakanan kirolari asko daude eta nitz oroitzea..." zioen, hunkitua. Sasoiko dago. "Oso ongi nago, ez dut bajoirik nabaritu. Beste Iruñaokekin San Silbestrea egitea da hurrena" zioen. Zenbakiikusgarriak ditu: 31 Behobia-Donostia egin ditu, munduan barna 9 maratotan aritu da, New York, Paris, Londres, Florencia, Praga eta Donostian eta ia asteburu lehiatzen da. "18 urterekin konpetizioan hasi nintzen, 23 urteraino. Soldaduskamilitarren Espainiako Txapelketan hirugarrena izan nintzen. Gero korrika utzi nuen, transportista nintzelako. 37 urterekin mina hasi zitzaidan izterrean. Medikua esan zidan ea ibiltzen nintzen. Eta orduan korrikan hasi nintzen berriro, eta erretiratzeko asmorik gabe.

Oraindik ondo nago, ez dut inolako minik ez pastillarik hartzen. Kaso egin behar da beti. Hau loteria da" onartu zuen. Arantzazu Larrañaga mendiko korrikalariak ere sorpresarekin hartu zuen izendapena. "Ez nuen espero. Oso pozik nago. Azken finean niretzat zaila da bi haur txikiarekin menditasterketetan aritzea. Nire senarra ere ibiltzen da eta txandaka ibili behar izaten dugu, batetik bestera... Kontziliazioa kirolean oso zaila da. Bion artean moldatzen gara; gustatzen zaigu eta gustura egiten dugu, baina zaila da. Mankomunitateko saria esfortzu horren errekonozimendu bezala ikusten dut" onartu zuen.

### Talde onena: Altsasuko futbol taldea

Sakanako talde onenaren saria jaso zuen Altsasu emakumezkoen futbol taldeak. Taldearen sortzaile eta bulkatzaile nagusia den Gorka Paskua osopozik zegoen. "Bi urteko epean emakumezkoen bi futbol talde sortu ditugu Sakanan. Hori oso zaila da eta saria egindako lanaren errekonozimendu handia bezala hartzen dugu. Oso pozik daude neskek. Gainera, aurten emaitzak ez dira hain onak eta bultzada bat emateko balio du sari honek. Gure helburua emakumezkoen kirola sustatea da eta oso pozik gaude" nabarmendu zuen Paskuak.

### Euskara gehien bulkatu duena: Iratxo

Irrutzingo Iratxo klubak, bestalde, euskara gehien bulkatzen duen kirol taldearen saria jaso zuen. Mendi egutegi propioa du Iratxok eta horretaz gain botxa sustatzen du. 27 urte daramatzate Sakanako Ibilaldi

Handia antolatzen, eta guztia euskara sustatuz. Eskertuta jaso zuten saria.

### Izendapenak: Ramon Arratibel eta Manuel Morcillo

Azkenik, epai mahaik bi izendapen berezi egin nahi izan zituen. Bat Ramon Arratibel "Rayo" lizarrengotarrarendako izan zen. Mendizale tasuna sustatzeko makina bat lan egin du Rayok, Euskal Selektzioa eta euskara bulkatzearekin batera. Saltsa askotako perexila da. "Oso pozik hartu dut izendapena. Nabarmendu nahi dut kirola kulturari lotuta ikusten dudala. Nafarroa Oinez, Herri Urrats, Ibilaldia, Kilometroak, Araba Euskaraz... euskara eta ikastolak bulkatzen 5.000 kilometro eginak ditut, diru bilketa egiten. Topera ibili naiz, eta poz handia ematen dit sari honek" azaldu zuen. Manuel Morcillo boxeolari ohiak aitortu zigan sariaren berri eman ziotenean hasieran txantxa bat zela uste izan zuela. "Boxeo utzi eta 43 urtetara... baina ilusio eta poztasun handiarekin hartu dut saria" esan zigun. 12 urtez lehiatu zen boxeoa eta 1966 eta 1967an pisu ertaineko Espainiako txapeliduna izan zen, prestatzailearik gabe. "Boxeoan hasi nintzen ordaintzen zuten kirol bakkarra zelako. Konbate bakoitzagatik 150 pezetaren ziren. Zazpi anai ginen, aitarik gabe, eta etxean lagundu beharra zegoen. Dohaik nituen... baina boxeoa oso kirol gogorra da, oso sakrifkatua. Ringera ateratzen zara arerioa lehenbailehen KO uztera. Horrela gogorra da kirol hau. Boxeoaren onena, uztea da" nabarmendu zuen Gasteizen bizi den 71 urteko altsasuarrak.

## Pala

## Puntako palistak gurean

Sakanako XI. Gure Pilota Emakumezkoen Pala Torneoak 3. Jardunaldia jokatu da asteburuan

Abenduaren 3an hasi zen Sakanako XI. Gure Pilota Emakumezkoen Pala Torneoa. Eliteen mailan, 2. mailan eta gaztetxoaren mailan jokatu zen ari da, eta Sakanako Mankomunitatek adierazi dutenez "egun Euskal Herrian puntako palistak direnak lehiatzen ari dira maila nagusian, puntako partidak eskainiz, eta kategoria txikietan Etxarri Aranazko Gure Pilotan eta beste klub batzuetan trebatzen ari diren neskek". Asteburuan 3. jardunaldia dago jokoan.

## Sakanako Emakumeen Palako 3. jardunaldia

Larunbatean, 11:00etan, Etxarri Aranatzan:

**2. maila:** Calvo-Urtasun/Suarez II.a-Mendinueta

Eskala-Villanueva / Suarez I.a-Ruiz de Azua

Martin-Lasa / Ardanaz-Gabirondo  
**Igandean, 10:30ean, Etxarri Aranatzan:**

**Eliteak:** Pradera-Mendizabal / Murillo-Arrieta

Etchelecu-Mendizabal / Aristorena-Etxaniz

Irazustabarrena-Huizi / Graciet-Ruiz de Larramendi

## Nafarroako txapeldunak



Kirolari peto-petoa dugu Irati Igoa Sesma etxarriarra. Altsasu futbol taldeko futbolaria batetik -ikus Guaixeko 12. orria-, Gure Pilota taldeko palista bestetik. Azken bi astetan Nafarroako Pala txapeliduna izan da bitan. "Duela bi aste Nafarroako Pala Txapelketa 22 urtez azpiko finala jokatu genuen nik eta Izar Parot etxarriarrak, Gure Pilotako gure taldekide Uxue Mendinueta eta Ane Eskalaren kontra. Izarrek eta biok irabazi genuen, 30 eta 26. Eta ostiralean Nafarroako Gazteen Mailako finala jokatu genuen Uxue Mendinuetak eta nik, Espinal taldeko Goretti Urtasunen eta Maider Ardanazaren kontra. 30 eta 18 irabazi genuen" azaldu digu Igoak. Bestetik, aipatzekoa da Nafarroako Pala Txapelketako maila absolutuko finalean Yanira Aristorena etxarriarrak eta Maite Ruiz de Larramendik Susana Munetari eta Ines Larrioni 30 eta 24 irabazi ziotela. Argazkian Irati Igoa falta da, finala jokatu eta joan behar izan zuelako, futbol partida baitzuen.



**Atletismoa**



**Garcia eta Beunza txapeldunak Altsasun**

**Zubetzta elkarrekin antolatutako 36. Oinezko lasterketa-33. Alberto Barricarte memorialean 253 korrikalari aritu ziren, 36 sakandar**

Sakandarrak 36. Oinezko Lasterketa -33. Alberto Barricarte Memorialean (12,2 km)

1. David Garcia (Durango): 39:20
7. Sergio Garcia de Eulate (Alts): 40:53
19. Javier Borrega (Alts): 42:25
25. Raul Audiñana (Olaz): 42:58
28. Aritz Pellejero (Lak): 43:44
33. Fco. Javier Gomez (Alts): 43:52
35. Juan Luis Maiza (Etx): 43:53
58. Andoni Azanza (Alts): 45:37
59. Iban Sobredo (Alts): 45:37
63. Jorge Iradi (Alts): 45:49
68. Fran Araña (Arb): 46:34
73. Gorka Garcia de Eulate (Alts): 47:03
74. Alberto del Rio (Alts): 47:09
75. Iñaki Alvaro (Alts): 47:12
78. Mikel Lakunza (Alts): 47:39
81. Martin Somocurcio (Alts): 47:48
82. Fernando Ganuza (Olaz): 47:52
84. Izaskun Beunza (Olaz): 47:53
85. Jose Ramon Ramirez (Alts): 47:53
87. Xabier Aierdi (Alts): 47:58
88. Iker Flores (Alts): 48:03
91. Alfredo Larraburu (Iru): 49:01
104. Juan Carlos Villalobos (Alts): 49:53
107. Asier Palacios (Alts): 50:05
112. Santi Agirre (Iturm): 50:23
119. Xabier Martinez (Alts): 50:40
122. Ginesa Lopez (Alts): 50:50
123. Mikel Goikoetxea (Alts): 50:50
127. Peio Bergara (Alts): 51:02

\*Saikapen osoa: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Primerako eguraldiarekin jokatu zen, Ama Birjiñaren egunean, 36. Oinezko Lasterketa edo 33. Alberto Barricarte Memoriala. 253 korrikalari hartu zuten parte, 36 sakandar tartean.

Korrikalariak Zubetztaiek prestatutako zirkuituari lau itzuli eman zizkieten, 12,2 km osatuko. Hasieratik taldetxo batek hartu zuen aurrea, David Garcia, Alberto Diaz, Juanjo Igarzabal eta Beñat Arnaizek osatutakoa. Laugarren bueltari ekiterakoan, David Garcia durangarrak abiadura azkartu zuen eta tartea atera zuen, helmugara bakarrik helduta. 20 segundo aterazizkion Alberto Diaz gasteiztarrari eta 22 segundo Juanjo Igarzabal zumarragatarrari.

Emakumezkoetan Izaskun Beunzak aurreko urteko garaipena berritu zuen (47:53). Olaztiarrak minutu bat eta 8 segundo atera zizkion Miriam Gazpio iruindarrari (49:01). Ginesa Lopez altsasuarra izan zen 3.a (50:50). Garaipena Goizederri, berriki zendutako bere lehengusinari eskaini zion.

**Futbola**

**Irati Igoa eta Aroa Cerezo Nafarroako selekzioa**

**Altsasu klubeko bi futbolariak Nafarroako 16 urtez azpiko selekzioarekin ariko dira asteburuan, Jaenen, Espainiako Txapelketan**

Altsasuko emakumezkoen futbol taldea ereindakoa jasotzen ari da. Klubak harro egoteko beste arrazoi bat du, Nafarroako 16 urtez azpiko emakumezkoen futbol selekzioarako bere bi taldekide deitu baitituzte: Irati Igoa Sesma etxarriarra eta Aroa Cerezo Cuesta lakuntzarra.

**Asteburuan Espainiako Txapelketanur**

Nafarroako 16 urteazpiko emakumezkoen futbol selekzioarako 18 jokalarikonbokatutuzte guztira, Igoa eta Cerezo tartean. Abenduaren 16tik 18ra bitartean Jaengo Ubedan jokatuko den 16 urteazpiko emakumezkoen VIII. Autono-



Igoa eta Cerezo, selekzioan. UTZITAKOIA

mien Arteko Espainiako Txapelketa Nazionalean hartuko dute parte, Nafarroako selekzioarekin.

**Pilota**

**Nafarroako Txapelketetan txapeldun sakandarrak ditugu**

**Lasok, Amianok, Igoak, Olaizek, Olabidek eta San Romanek Nafarroako txapela jantzi dute**

Nafarroako Pilota Txapelketako finalak jokatzen ari dira Gabonen aurretik. Batetik, Kluben Arteko Nafarroako Pilota Txapelketan lau txapel etorri dira Sakanara. Benjaminen 2. mailan, Lasok eta Amianok (Iruztzun) 18 eta 13 hartu zituzten menpean Gelbenzu eta Oderiz (Oberena). Eta benjaminen 3. mailan txapela Altsasura ekarri zuten Igoak eta Olaizek (Pilo-

tajauku), 18 eta 11 irabazi baitzieten Zabaletari eta Etxeberriari (San Francisco Javier).

Bestalde, Nafar Kirol Jolasen 36 metroko Esku Pilota Txapelketan, kimuen 3. Mailako finalean Baztanek eta Urmenetak (Zugarralde) 18 eta 10 irabazi zieten Gainzaraini eta Amadori (Aldabide). Eta haurren 3. Mailako finalean Olabideri eta San Romani (Pilotajauku C) 13 eta 18 irabazi zieten euren taldekide Agirretzek eta Peralek (Pilotajauku B).

**Futbola**

**FEDERATUTAKO TXAPELKETA PREFERENTE MAILA. 1. multzoa**

12. JARDUNALDIA

**LAGUN ARTEA 5 - AMIGÓ 0**  
**ETXARRI ARANATZ 3 - URROZTARRA 0**  
 Amigo taldeari 5 eta 0 irabazi eta gero, saikapenean 2. postura igo da Lagun Artea. Sekulako partida jokatu zuten lakuntzarrek. Partida eroso izan zen txuriendako eta Anderrek, Danik, Josebak eta Aitorrek lehen zatian sartutako golei, Anderrek bigarrenaren sartutakoa gehitu zitzaizen. Etxarri Aranatzen ere gol festa ederra ospatu zuten zaleek. Asier Urkiak berehala sartu zuen lehen gola. Dominatzen hasi ziren etxarriarrak, Luisek bigarrena sartu zuen eta aukera gehiago izan zituzten. Bigarren zatian Urrozarrakoek euren ate propioan gola sartu zuten eta horrela despeditu zen lehia.

Saikapena >>

1. Bidezarra ..... 25 p
2. Lagun Artea ..... 23 p
10. Etxarri Aranatz ..... 14 p

Asteburuko jardunaldia

**URROZTARRA - LAGUN ARTEA** (Larunbatean, 17:00etan, Urrotzen)  
**BURLADES - ETXARRI ARANATZ** (Igandean, 18:30ean, Erripagainan)

**ERREGIONAL MAILA. 1. multzoa**

11. JARDUNALDIA

**ALTSASU 2 - AURRERA 1**  
 Altsasuk denboraldi hiru garraipena lortu zuen, etxean Leitzako Aurreraren kontra jokatutako partidari. Altsasu dominatzen saiatu zen, baina kosta egin zitzaion. Iokinek Altsasu aurreratu zuen partida hasi eta ordu erdira. Bigarren zatian Aurrerak berdintzea lortu zuen eta altsasuarrak behin eta berriz saiatu ziren. Azkenean, Imanolek garaipenaren gola sartu zuen partida bukatzen. Sufritutako garaipena izan zen.

Saikapena >>

1. San Jorge ..... 24 p
6. Altsasu ..... 14 p

Asteburuko jardunaldia

**ARDOI - ALTSASU** (Larunbatean, 18:30ean, Zizur Nagusian)

**EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA**

11. JARDUNALDIA

**ALTSASU 6 - BERIAINGO IRUNTXIKI 0**

Saikapena >>

1. Osasuna Fundazioa ..... 28 p
12. Altsasu ..... 6 p

Hurrengo jardunaldia (Iibeltzak 8)

**BETI KOKZOR - ALTSASU**

**ELOMENDIKO TXAPELKETA**

12. JARDUNALDIA

**ZALDUA 4 - BAR MIKEL 2**

Saikapena >>

1. Unziti ..... 28 p
4. Zaldua ..... 23 p

Asteburuko jardunaldia

**ELOMENDI - ZALDUA**

**Futbola**

**Sakanako Futbol Topaketak: kimuen 6. jardunaldia etzi**

Sakanako Mankomunitateak Sakanako futbol klubentzako antolatutako Sakanako Futbol Topaketak aurrera doaz. Igandean kimuen mailako 6. futbol jardunaldia jokatuko da Altsasun eta Etxarri Aranatzen.

**Sakanako Futbol Topaketak. Kimuen 6. jardunaldia, igandean**

- 10:00etan:** Urdiain - Tipi Tapa (Dantzalekun)
- 10:00etan:** Sutegi - Kaixo (Dantzalekun)
- 12:30ean:** Lagun Artea - Etxarri Aranatz (Etxarri Aranatzen)

**Mendi lasterketak**

**I. Erripagaina Traila Codonendako**

**Irurtzundarrak (54:04) 42 segundo atera zizkion Daniel Iparragirri (54:46)**

Sakandarrak I. Erripagaina Trailean

- 12,5 km**
1. Fran Codon (Iru): 54:04
  56. Mikel Iriarte (Iru): 1:12:48
  97. Aitor Mendia (Iturm): 1:24:08
- 6,3 km**
1. Antonio Mazo (Lasarte): 30:36
  6. Isidro Asurabarrena (Alts): 32:21



Codon, ezkerrean. UTZITAKOIA

Abenduaren 4an I. Erripagaina Urban Traila jokatzen zuten Burlatan, lasterketa oso gorabeheratsua, aldapaz jositakoa eta gogorra. Proba luzea (12,5 km) eta proba motza (6,3 km) izan zituzten aukeran aritu ziren korrikalariak. Francisco Codon irurtzundarra gailendu zuen proba luzean (54:04). "Irurtzundago naiz eta bertan aldapa asko ditugu. Banekien nora nentorren" adierazi zuen irabazi eta gero, korrikalari irurtzundarrak. Familiari eta lagunei eskaini zien garaipena. Emakumezkoetan Edurne Vicente gailendu zuen (1:03:18).

Proba motzean Antonio Mazo (30:36) eta Maria Loizu (36:27) gailendu ziren.

**Garcia de Eulate hirugarrena Esteribarren**

Igandean 12. Esteribarreko Krosa jokatu zen Zubirin. 126 korrikalari lehiatu ziren proba absolutuan (8,6 km). Oibarreko Alberto Azparraren (36:06) eta Izaskun Sanz (45:30) izan ziren azkarrenak. Sergio Garcia de Eulate altsasuarrak lasterketa bikaina egin zuen eta hirugarrena sailkatu zuen (36:56).

**Areto futbola**

**Errege Koparako finalerdietarako sailkatuta, Santiago izango du aurkari Magna Gurpeak**

Ostiralean Magna Gurpeak Inter Movistar liderra hartu zuen Anaitasunan. Imanol Arregiren mutilek hasieratik bukaeraino borrokatu egin zuten, bikain jokatu zuten, baina jokaldiak borobiltzea, hori falta izan zitzaizen. Aldiz, Inter Movistar efektiboagoa izan zen eta Iruñean jokoan zeuden hiru puntuak bereganatzea lortu zuen (1 eta 4). Imanol Arregik adierazi zuen galdu izanagatik "triste" baina bere jokalariek egindako lanarengatik "pozik" zegoela. "Beste emaitza bat merezi izan dugu. Euren kontrako atean asmatu dute eta guk ez, hori izan da bi taldeen arteko diferentzia bakarra" nabarmendu zuen. Asteartean Errege Kopako final laurdenetan Valdepeñasi 2 eta 7 irabazi eta gero, gaur ligako partidari Santiago Futsal izango du arerio Magna Gurpeak.

**Gimnasia erritmikoa**



**Gabonetako ikuskizuna etzi**

**Igandean, 11:30ean, Altsasuko Burunda pilotalekuan**

Iskiza Kirol Elkartearekin gimnasia erritmikoan trebatzen dira Sakanako makina bat gazte. Ikasturtean barna ikasitakoa erakusteko aukera bikaina da urtero Gabonen aurretik antolatzen duten Gabonetako ikuskizuna. Igandean izango da, goizean, Burunda pilotalekuan. Euren maillot politenak jantzita, ikasturtean barna prestatutako koreografia ederrak antzeztuko dituzte gimnastek. Pilotak, mazoak, zintak, uztaiak eta beste erabilia, edo haiek gabe, sekulako ikuskizuna eskainiko dute, seguru.



Mendia

# Mendigoizale Eguna etzi



**Nafarroako mendizaleak 52. Mendigoizale Egunean bilduko dira, igandean, Aralarren. Sakanako Mendizaleak taldekoak 8:30ean aterako dira, Lakuntzatik**

Urteromoduan, Gabonen aurreko igandean Mendigoizale Eguna ospatuko da Aralarlako Santutegian. Mendizaleek gorritz markatuta duten zita da hau, besteak beste hildako mendizaleak oroitu, mendi klubetako gainontzeko mendizaleekin elkartu eta urte bukaera uki-tua duen festa delako.

**Meza eta auzatea**

Mendizale gehienak oinez joango

dira Aralarrrera, 8:30ean abiatuta, bakoitzak aukeratzen duen bidetik. Gehienak Uharteko Arakildik, baina Sakanako Mendizaleak taldetik Lakuntzatik abiatzeko deia egin dute, 8:30ean. Aralarren, hildako mendizaleen oroimenezko meza izanen da 11:30ean. Mendizaleek euren mendi materiala bedeinkatzeko aukera izango dute eta, jakina, Mikel Goiaingeruarimusu emateko aukera. Ondoren hamaiketa-koaren txanda izango da, musika lagun, eta kanta eta dantzen tartea helduko da. Ondoren, 12:30ean, ohiko elizkizuna izanen da Aralarren.

Herri kirolak

# Giro bikaina Sakanako Herri Kirol Jardunaldian



**Olaztin burutu zen eta 35 herri kirolarik parte hartu zuten Mank-en urte bukaerako saioan**

Olaztiko pilotalekuan ospatu zen, igandean, Sakanako Herri Kirol Jardunaldia. Urtea lagun artean despeditzeko aitzakia bikaina izan zen. Mank-ek sustatutako Sakanako Aizkora Eskolako eta Sakanako Harri Jasotze eskolako ikasleek ikasturtean ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan zuten. Horretaz gain, Sakanako aizkolariek, Sakanako trontzalariek eta

Sakanako tiratzaileek ere hartu zuten parte ekitaldian.

35 kirolaririk gora aritu zirela aipatu digu Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak: 16 aizkolarik, 2 harri jasotzaile eta Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastolek 12 tiratzaile eta 4 trontzalarik, besteak beste. Horretaz gain, Sakanako Aizkora Eskolako monitorea Mikel Lasartek motozerrarekin egurra tailatu zuen. "Herri kirolak gurean bizirik daudela erakutsi zuten" nabarmendu du teknikariak.

Pilota

# Iñigo Aritzako txapelkunak



**Igandean Iñigo Aritza ikastolako Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren Altsasuko Burunda pilotalekuan**

Euskal kirolak, tartean pilota, sustatzea da Iñigo Aritza ikastolaren helburuetako bat. Horretarako Ricardo Lopez de Sabandok pilota eskolak ematen dizkie ikastolako txikiei eta, horrekin batera, urtero, Iñigo Aritza Pilota Txapelketa antolatzen du ikastolak.

Igandean final handiak jokat

tu ziren Altsasuko Burunda pilotalekuan. Ikastolako neska-mutikoei izugarri gozatu zuten eta partida politak eskaini zituzten.

**Iñigo Aritza Pilota Txapelketako finalak**

- LH3:** Asier Zubiria **18** - Mikel Arrizabalaga **4**
- LH4:** Aimar Igoa **18** - Enaitz Gonzalez **6**
- LH5:** Oier Mitxelena **18** - Patxi Azpeitia **8**
- LH6:** Joseba Ortigosa **16** - Iker Agudelo **18**
- DBH1:** Araitz San Roman **16** - Lander Peral **18**
- DBH2:** Angel Vergara **18** - Unai Irigoien **0** (lesionatuta)

Xakea



# Regillaga txapelkun

**Nahiz eta lehiatu ziren 22 xakelariren artean gazteena izan, 11 urte, XVII. Sakanako Xake Txapelketa irabazi zuen Regillagak**

22 xakelarik hartu zuten parte Sakanako Mankomunitateak, Zaldi Beltza Xake Taldearen eta Urdiaingo Udalaren laguntzarekin larunbatean antolatutako XVII. Sakanako Xake Txapelketan. Txapelketa, aldi berean, Nafarroako Xake Txapelketa izan zen 1.800 ELO puntutik behera.

22 xakelariren artean 5 sakandar ziren, 3 bizkaitar eta gainontzekoak Iruñekoak ziren. 20 minutuko 8 partidatara jokatu zen txapelketa. Mikel Markotegi etxarriarra ibili zen epaile lanak egiten. Manex

Regillagak sorpresa eman zuen eta, nahiz eta gazteena izan, 11 urte baititu, Sakanako Txapelketa irabazi zuen Elorrioko gazteak. "Txapelketa polita izan da. Manex Regillagak, nahiz eta partida bat galdu, txapelketa bikaina egin zuen eta irabazlea izan zen. Arreta handiz jarraituko dugu bere ibilbidea, ea urruti iristen den" adierazi dute Sakanako Zaldi Beltzakoek.

Manex Regillagaren atzetik (6,5 puntu) Mikel Ochoa (6,5 puntu) eta Alfredo Ruiz (6 puntu) sailkatu ziren. Sakandarren artean Koldo Flores izan zen onena. Lizarraga-bengoakoa 12.a sailkatu zen sailkapen orokorrean (4 puntu).

**Alain Senar**  
akademia • academia

INGENIARI INDUSTRIALA  
606 053 076  
Eguber, 14 | ALTSASU

**UDAN klaseak**

- Errekuperaketen prestakuntza
- Kurtso berriaren prestakuntza
- Udako etxeko lanak eta proiektuak
- Kurtsoan zehar emandako materialaren errepaso

...  
Euskaraz eta gaztelerez irakasgai guztiak  
Maila guztiak

- BEROKUNTZA - NEKAZARITZA -  
- AUTOMOZIOA -

**Lakuntza**

**Etxera eramateko gasoleoa**

Alberto Iriarte  
948 576 016 - 609 421 680

**IÑAKI**  
BIZARTEGIA

684 315 869  
Nagusia 14  
ETXARRI ARANATZ

# Non erabili

**ARGIRO OPTIKA**  
**ETXARRI ARANATZ**  
%50eko deskontua graduatuetan.

**ZELANDI KIROLDEGIA**  
**ALTSASU**  
Lehenengo matrikula doan.

**IZARA**  
**ALTSASU**  
%5eko deskontu zuzena etxeko jantzi eta osagarrietan.

**TXIKITXO**  
**ALTSASU**  
60€tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabilitzeko.

**NAMASTE YOGA**  
**ALTSASU**  
Bi yoga klase doan.

**TIPI TAPA OINETAKOAK**  
**ALTSASU**  
60€ko erosketetatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

**VIZU ILEAPAINDEGIA**  
**ITURMENDI**  
30€ko gastuarekin, %10eko deskontua.

**ALDASORO HARATEGIA**  
**ALTSASU**  
30€ko erosketetatik %10eko deskontua erabiltzeko.

**ALFA INMOBILIARIA**  
**ALTSASU**  
Etxe edo pisu baten erosketetatik 100€ko txeketa opari.

**KIXKUR ESTETIKA ZENTROA**  
**ZIORDI**  
30€ko gastuarekin %20eko deskontua produktuetan.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai

**BAZKIDETZA 50€**  
**948 564 275**



## Iortia, flamenco etxea



Larunbatean, 19:00etan eta 21:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean Gorka Hermosa, Jose Luis Monton, Haize Berriak banda eta Erkudengo Ama abesbatza

Haize Berriak bandak *Zatoz, agur* kontzertuarekin Enrique Zelaia omendu zuen. Emanaldi hartan hainbat akordeoilarik parte hartuzuten. Baina konpromisoagatik, atzerrian jotzen zegoen, Zelaia bideo bidez agurtu zuen musikari bat izan zen: Gorka Hermosa. Orduetik Hermostak eta Haize Berriak bandako kideek harremana eta elkarrekin zerbait egiteko gogoia mantendudute. Bien arteko lanarekin emaitzaz bihar gozatzeko aukera izanen da.

*Flamenco Etxea* Hermosa akordeoilarik Jose Luis Monton gitarraren jolearekin batera sortutako proiektua da. Lehenak bere

lanarekin akordeoiairendako aitor-tza lortu du. Bigarrena flamenkoa joz hazi da, baina hainbat kolaborazio ere baditu. Bi musikariek, akordeoiairekin eta gitarrarekin, fusio bitxia egiten dute: flamenkoaren eta euskal musikaren fusioa. Sortu duten berezko hizkuntza horretan eurek propio sortutako obrak (buleriak, tangoak, euskal fandangoak eta tangoak) eta beste obren bertsoak daude, esaterako, Bach-enak.

Musiken mestizaia horretan Hermostak eta Montonek aldamean izanen dituzte Haize Berriak banda, alde batetik, eta Erkudengo Ama abesbatza bestetik. Flamenko dantzari batek ere parte hartuko du ikuskizunean. Zelaia-aren pieza baten moldaketa bitxia eta bestelako sorpresak iragarri dituzte bandatik.

## Plaza hartuko du kontzertua

Gaur, 23:00etan, Altsasuko Foru plazan

El Txino Kudeiro talde altsasuarra izanen da gaurko gaueko giroa oholtzatik berotzen hasiko dena. Jesus Palop (gitarra), Ekain Alegre (gitarra), Unai Villalobos (baxua), Eukene Perez (bateria) eta

Yakob Samanes (pianoa) dira taldeko kideak. Euren kantuekin batera punk-rock-eko kantuen bertsoak ere badituzte errepertorioan. Tafallatik heldu da gaueko bigarren taldea, Zartako-k. Zortzikotea da eta street-ska doinuak lantzen ditu. Lastailan argitaratutako *Alienados* diskoa aurkeztera heldu dira Altsasura.

## Karasatorre Nafarroako bertsolari txapelketako kanporaketan

Gaur, 19:00etan, Iruñeko Katakarak liburu-dendako aretoan

Bi urtean behin jokatzen da Nafarroako bertsolari txapelketa. Heldu den urtekoa 43. edizioa izanen da. Final-laurdenetako fasea otsailaren 18an hasiko da eta txapelketa apirilaren 8an despidituko da. 35 bertsolarik eman dute izena hartan parte hartzeko.

Baina txapelketa hasi aurretik kanporaketa saioa izanen da. Bede-

ratzi bertsolarik hartuko dute parte kanporaketan, txapelketan estreinakoz izena eman dutenak, Saats Karasatorre tartean. Kanporaketako lau onenak txapelketako final-laurdenetarako sailkatuko dira. Bederatzikoteak honako lana egin beharko du: zortziko handian binaka gaia emanda hiruna bertso, zortziko txikian binaka ofizioka hiruna bertso, aurreneko puntua emanda, bi bertso zortziko txikian eta, azkenik, hitza emanda bertso bana. Saioa Alaitz



Rekondok aurkeztuko du eta epaile lanetan Nerea Bruño, Mikel Beaumont, Izaro Mitxelena eta Ekintza Landa ariko dira.

## bazterretik

Juankar Mugarza

### Gabon gaua ospatzeko aitaren eta amaren ondoan

Azkenaldi honetan gertakari latzak bizitzen ari gara. Gertatutakoaren neurri kanpoko larritasunak Nafarroako Gobernua bera ere hunkitu du. Bereziki, atxilotuen familiak kalbario ezin handiagoko pasatzen ari dira. Haien ondoan egotea ezin bestekoa da uno hauetan; askoz ere gehiago, orain, gabonak datozelarik eta "Hator, Hator mutil etxera" kantaren metaforak inoiz baino zentzu sakonagoa hartzen duen honetan.

Sanferminetako bortxatzaileen irudiak taldean eta aurpegiak pixelatuta ikusi nituen erdal egunkari batean, izenik gabe eta "ustezko" hitza gaineraturik. Aldiz, Altsasuko ferietan atxiloturiko gazteenak bana-bana, karnet moduko argazkietan lehen planoan, izen-abizenekin eta pixelatu gabe. Ez zaituzte berdintzatzen Altsasuko bazara.

Arrazoi politikoak alde batera utzita, pentsa liteke altsasuarron peka-

tua, kartzelara eraman zaitzakeena, euskalduna izatea dela, euskaraz jakitea, eta euskararen herriarentzat askatasunik handiena aldarrikatzea. Izan ere, altsasuar asko eta asko "ez gara hemengoak", Sarrionaindiak esango lukeen bezala. Altsasukoak gara, baina badugu beti gure familietan "kanpotar" bat, denak ez baditugu. Iritsi ginen belarrimotz eta zorrotz gauen belarria. Euskaldun bilakaturik, izugarriko atxikimendua diogure hizkuntzari. Behin Sarabeko Jesusa Irigoienekin hizketan, argi eta garbi esan zidan nolako egoera larrian egon ginen eta gauzak nola aldatu diren gaur egun:

"Ba, hemen, egiten zen lehen ere. Beti etortzen gen gu alderdi hontan eta hemen jende, horrenbeste jende zoz guain beindo ere. Danok ezagutzen genuen lehen herri guztiok, zeren txikio zan lehen ere, eta orduen ezagutzen ginduen herri guztia, Altsasuko guztiak, zertzen ginduen, ezagutzen ginduen, ezin ezkeoz ferrobiario batzuk,

edo kanpotik etorriak, edo beste lekukoak, baino ja gero etorri zen gerria, eta harek jibatzen zigun. Eta harek euskeraz egin ezker edo aditua baldin bazintuen bakarren bati esateko agur edo... honekin egiten bazinduen... Jobar...!! Baziren zerakin, hau egitearekin, hau egin berrien, hau... Muerto! Danak! Holaxen! Eta ezin zinduen euskaraz egin! Eta orduan galdu ginduen asko! Altsasun hil zan. Horiek denak egiten zuten eskuraz! Sekula ez ziguten erderaz egiten guri! Beti-beti-beti eskuraz! Holan fateko... ez dakit ba! Zeitik pasadeko horiek hil ziren; zeitik ja horiek ere, ja urteak dira horiek hilik... ta ja jende dana... ja desaparezitu da, danak fanik hemetik... Baina goain distinto da! Distinto da bai!"

Bai, gauzak aldatu dira orain. Haurrak euskaraz aritzen dira. Euskarra berreskuratu dugu maisu-maistra askoren lanari esker. Maisu izateko praktikan zegoen bat kartzelanda goorain. Bera eta besteak kalean behar ditugu jadanik.

# ALBUM ILUSTRATUAK

## SORTZEKO TAILERRA

Tailergileak:  
Yolanda Anrieta  
Aitziber Alonso

Abenduak 23, ostirala,  
17:00etatik 19:00etara,  
Iortia kultur gunean

Antolatzailea: **Mank**

Laguntzailea: Altsasuko Udala

6-10 urte bitarteko haurrentzako (LHI-4)  
Izen-ematea Iortia kultur gunean hilaren 18ra arte  
(948 564 255 iortia@altsasu.net)



# Etxarri Aranazko abesbatza txapeldunen txapeldun!

**XVIII. Abesbatzen Sari Nagusia, folklore eta polifonia sariak irabazi zituen Zumarragan**

Landiaren emaitza jaso zuen Etxarri Aranazko abesbatzak igandean, txapelketen txapelketa den Abesbatzen Sari Nagusia eskuratu zuen, gainera, bai polifonian bai folklolean onenak izan zirela nabarmendu zuen epaimahaiak. Maila handiko abesbatzen aurrean egindako lan onak emandako poztasunarekin eta 2.000 euroko sariarekin bueltatu da abesbatza.

Epaimahaiak Etxarri Aranazko abesbatzari buruz zera esan zuen: "soinu oso borobila eta beroa

duen abesbatza da. Gainera, detailak asko zaintzen dituzte eta askotariko programa aurkeztu dute".


## Lehiaketa

Abesbatzen Sari Nagusia urterotoki batean jokatzeko da. Lehiaketa horretan parte hartzeko sariketa-rekin lotura duten lau abesbatza lehiaketetako bat irabazia izan behar dute koralek aurreko urtean. Guadalajarako Kromatika ahots taldeak Valladolideko lehiaketa ordezkatu zuen, Vigoko GLI Appassionati ganbera abesbatzak San Vicente de la Barquerako marinel kantuko lehiaketaren bidez lortu zuen txartela, Gernikako Gaudeamus abesbatzak Zumarragako Antigua Abes-

batzen Lehiaketa ordezkatu zuen eta, azkenik, Etxarri Aranazko abesbatzak Ejea de los Caballerosko lehiaketako ordezkaria izan zen.

## Etzi, Etxarri

Zumarragan guztia irabazi ondoren etxean kantatuko du Etxarri Aranazko abesbatzak. Eguberri-tako kontzerturako Zumarragan saria eman dion polifoniako eta folkloreako egitaraua aletuko du abesbatzak. Hori aurreneko zatian izanen da. Bigarrena hasteko Abesbatza txikiari lekukoa pasako dio. Hark hiru kanta eskainiko ditu eta, ondoren, nagusiekin batera despedituko dute emanaldia. Pentsatzekoa da etxarriarrek Zumarragan lortutako balentria txalo zaparradarekin aitortuko dutela.



## Egitaraua

1. zatia	
Kanta	Egilea
Ave Regina Caelorum	Tomas Luis de Victoria
Richte mich, Gott	Felix Mendelssohn
Villarosa Sarialdi	Thomas Jennefelt
Te veo, Ejea	Sergio Jimenez Lacima
Kantatzera nuazu	Koldo Pastor
Ama begira zazu	Victor de Zubizarreta Arana
Zure boza	Xabier Sarasola
Kitolis	Luis de Aranburu

## 2. zatia (Abesbatza txikia)

Kanta	Egilea
Bizirik gaudelako	Olatz Zugasti
Feliz Navidad	Jose Feliciano
Ole Olentzero	Ene Kantak

Etxarri Aranazko Abesbatza eta Abesbatza txikia	
Kanta	Egilea
Por eso cantamos	Jose Elberdin
El burrito sabanero	Hugo Blanco

# Herria bihotzean, hari kantuan

**Gaur, 20:30ean, Altsasuko elizan**

Asteburu betea du Erkudengo Ama abesbatzak. Gaur eguberri kontzertua eskainiko du. Abesbatzatik esan duteenez, "gaur egun Altsasun oso momentu zailak pasatzen ari diren pertsonak eta euren familiak gure bihotzean egon dira kontzertuan. Gure elkartasuna adierazi nahi diegu eta Altsasuko herriari gure kontzertua eskaintzea da gure asmoa".



bihar abesbatza altsasuarra *Flamenco etxea* ikuskizunean parte hartzeko da Haize Berriak bandarekin, Jose Luis Montonekin

eta Gorka Hermosarekin batera. Abesbatzatik azaldu digutenez, "oso urte bizia izan da. Proiektu askotan parte hartu dugu: Saka-

na Maitia emanaldian eta bideo-kliparen grabazioan, filmetako musikaren monografikoan, Holandako bidaia, zenbait elkartruke eta kontzertuak... Guztia-rekin oso lanpeturik ibili gara eta koralista guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu egin duten ahaleginagatik".

Urte berrirako asmo berrien bila dabilzanendako aholkua ere badute: "jendea abesbatzan kantatzera animatu nahi dugu. Oso atsegina izateaz aparte, osasuntsua da eta bizitzaren esperientziak ahaztezinak dira. Gure atea irekita daude kantatzea gustuko duzuen guztiendako".

## Egitaraua

Abestia	Egilea
Malaika	Tanzaniako gabon kanta
Egizu lo	P. Jorge de Riezu
Lua, lua	Herrikoia. Mold. J. Ezkurra
Gabriel's oboe	E. Morricone. Mold. J.L. Gorospe
Arkume ta gaztakin	Herrikoia. Mold. L. Ondarra
Por los caminos de Jerusalem	E. Correa
Romance del establo de Belen	E. Correa
Adeste fideles	J. Reading
Noche de paz	X. Gruber
El pequeño tamborilero	Katherine K. Davis
Blanca navidad	Irving Berlin

## Klinikakoen lanak arte eskolan ikusgai

Iruñeko Arte Eskolak Josefina Arregi klinikako arte terapiako ikasleek egindako lanen erakusketa hartu du. *La mirada de la memoria desde la arteterapia* izenburua du erakusketak. Helena Santano Cid arte terapeuta altsasuarrekin aritu ziren udaberri klinikako erabiltzaileak. Eguneko zentroko sei eta kanpo kontsultetako hiru erabiltzaile izan ziren Santanorekin aritu zirenak. Sortze-estimulazioa sustatzen saiatuz; batez ere, burmuinaren eskuin aldearen bizitzea. Bitartekoak eman eta erabiltzaileen sormen askea sustatu zuen. Sortutako lanak hilaren 5ean mustuzen erakusketa eta 22ra arte daude ikusgai. Apirilean, berriz, Iortia kultur gune altsasuarrean izanen dira.

## Sarduiren liburua hizketagai



Alex Sardui bere aurreneko eleberria *Esan eta egin* (2013, Baga Biga) besapean duela etorri da Altsasura. Iortia kultur gunean AEK-ko ikasleak eta Mintzaki-de programako kideak zituen zain. Haiek liburua irakurri ondoren sortu zaizkien zalantzen inguruan

galdetu, iritziak trukatu eta pasarte inguruko jakin-mina asetzeko aukera izan dute. Sarduirekin literatura hizketaldia Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eta AEK-ko Itsasi euskaltegiak eta Sakanako Mintzakidek antolatu dute.

## Oroimenerako artelanak



Koldo Arnanzen, Morkotsen, Helena Santanoren, Argiñe Berastegiren eta Adela Sanchezen olioak. Venancio Amillanoren taila. Birziklapen tailerraren instalazioa. Kiki Asensioren argazkia. Javi Trapeoren eskulturak. Josu Baran-

diaranen argazki berezia. Irati Urrestarazuren eskultura. Jesus Tobarren tinta-marrakizkiak eta Rosa Arnanzen eta Maite Migue-len zeramikak. Horiekin guztiekin osatzen da Oroimenart erakusketa, domekara arte Iortia kultur gunean ikusgai dagoena.



## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: %10 Min: 8 Max: 11	euria: %12 Min: 6 Max: 12	euria: %4 Min: 5 Max: 11	euria: %12 Min: 5 Max: 7	euria: %50 Min: 4 Max: 6	euria: %30 Min: 4 Max: 8	euria: %20 Min: 4 Max: 11

## : temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	16.5	1	0
Etxarri A.	15.3	-1.4	0
Altsasu	14.5	-0.5	0.6
Aralar	8	0.2	0.4
Urbasa	12.5	-4.5	0

## : ilargiaren aldia>>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
21	29	4	12

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

## Bazkide zozketa

ABENDUKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera.  
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

Ekain berri

# >> 11

## galdera

Aitor Mendoza eta Oihane Rodrigo

Euskal Txerri ekoizleak



**Testua:** Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

**1.- Zergatik erabaki zenuten euskal arrazako txerriak hazteari ekitea?**  
Idea duela urte eta erdi inguru jarri genuen martxan. Oihane, umeak izan ostean, ez zuen lanik, eta zerbait egin nahi genuen. Arbizun zer dago sona handia duena? galdetuta, txistorra izan zen bururatu zitzaigun lehen gauza. Eta paradoxikoa den arren, Arbizun ez dago txerririk. Horrela, lagun batzuek harremanetan jarri gintuzten Elizondon euskal txerriak zituen pertsona batekin. Azkenean, autoktonoa den txerri arraza, horren alde egin genuen apustu.

**2.- Arraza desagertzeaz izan zen.**  
Bai. 1929an 158.000 euskal txerri zeuden zentsatuta. 1981erako, baina, soilik 50 abelburu gelditzen ziren. Ale hauek Pierre Oteiza izeneko aldudarrak aurkitu zituen Parisko azoka batean, eta berauek hazten hasiz. Egun oso ongi antolaturiko hainbat harategi ditu Iparralden. Hemen, Arbizun, Intia enpresa agronomoa hasi zen arraza hau berreskuratzen. Gauzak ez ziren nahi bezala atera, eta ustiapena Oronoz-Mugairira eraman zuten. Egun, erreferentzia Lekunberriko Maskarada enpresa da.

**3.- Zer desberdintasun du euskal txerriak?**  
Haragia eta tamaina, batez ere. Txerri zuria askoz azkarrago hazten da, handiagoa egiten da, eta hori guztia euskal txerriak baino pentsu gutxiago janda. Gainera, kume gehiago egiten ditu. Arrazoi horien gatik egon zen desagertzeaz. Azken batean, txerri zuria errentagarriagoa da. Baina euskal txerriaren haragia oso berezia da. Gantz asko du. Urdaiazpikoak mundialak dira.

**4.- Zuek zertarako ari zarete ekoizten?**  
Pixkanaka goaz. Arbizuko txistorra-azokarako, adibidez, txerri bat erregenuen, eta sekulako arrakasta izan zuen. Bestalde, txorizoa, saltxitxoia, hirugiharra, pateia, odolikia eta txantxigorria ere saldu genuen. Jendearen erantzuna oso ona izan zen. Orain freskoan ari gara saltzen. Ale guztiak berehala erosten dizkigute.

**5.- Errentagarria al da euskal txerria haztea?**  
Hala espero dugu. Momentuz ez dugu ondorio argirik. Txerri hau 12-15 hilabetetan hazten dena, txerri zuria 9 hilabetetan hazten da. Beraz, pazientzia eduki behar da. Lan asko egin behar da, hila-bete askoan sosik ez ikusteko. Jarduteko modua oso desberdina da. Guk txerriak ez ditugu egitura estu batean sartuta; libre daude. Zelaia eta zotolak ditugu, besterik ez.

**6.- Egunerokotasunean zer lan egiten duzue?**  
Txerriei bazka ematen diegu; amek erditzen dutenean, nola dauden ikusten dugu; txerrikumeak zaintzen ditugu; parasitoen kontrako produktuak ematen dizkiegu; handitzen direnean eraztuna jartzen diegu muturrean... Egunero jardutea eskatzen du.

**7.- Nafarroan ekoizle gutxi zaudete. Estrategia zuzena, indar metaketa izango da.**  
Hemen jende oso gutxi gabilta. Hasieratik garbi genuen bakarka arituta gauzak aurrera ateratzea askoz ere nekezagoa izango zela. Horrela, Nafarroako gai-

nontzeko ekoizleekin elkarre bat eratu genuen. Orain, Euskal Herriko gainontzeko lurraldeetako elkarrekin konfederazio antzeko bat egin nahiko genuke. Iparraldekoak oso aurretik ditugu; jada jatorri izendapena dute. Gure asmoa da Nafarroan ere aurrera egitea.

**8.- Diru-laguntzarik jasotzen duzue?**  
Babestutako espezieak hazten dituztenendako badaude subentzioak. Zernahiere, oraindik ez dugu halakorik eskatu. Datorren urtean agian saiatuko gara. Azpimarratzekoa da Arbizuko udalak eman digun hauspoa. Lur-sail handi bat behar genuen, eta udalak utzi digu.

**9.- Aitor, beste lan bat ere baduzu. Bi jardunak bateragarriak dira?**  
Bai, bateragarriak dira, baina Oihane asko laguntzen nauelako. Bakarrik egongo banintz, ezinezkoa litzateke.

**10.- Produktuak nola merkaturatzen dituzue?**  
Salmenta zuzenaren bidez. Jende-ari ekoizten ari garena gustatzen ari zaio. Eskari franko ditugu. Produktu desberdinez osaturiko loteak ari gara saltzen, bakoitza 40 eurotan.

**11.- Etorkizuna nola dakusazue?**  
Etorkizunari baikortasunez so egiteko arrazoiak ditugu. Urte eta erdian asko egin dugu: zotola guztiak eraiki, itxiturak jarri, 30 bat buruko txerri-taldea zaindu... Aurki, beste bi urdanga ekartzea espero dugu. Horrela, abeltzaintza ustiapen gisa emango genuke alta. Horrek kontrola zorrotzagoa izatea ekarriko du.

NOR GARA KONTAKTUA

diseinua

gk

KOMUNIKAZIOA

argitalpenak

irudi korporatiboa

app-ak

itzulpenak

KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107  
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus